

GIPUZKOAN

545 positibo berri
2.098 hildako EAEn
15.823 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

469 positibo berri
668 hildako
27.410 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 521 (+27), ASTIGARRAGAN 145 (+7)

(Nafarroako Osasun Saila)

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Ahoa estalita, baina ixiltzeko asmorik gabe

URUMEA
ABESBATZAK

2-3-4-5



Urumea bailarako elkarateak, itxita

URUMEA
ELKARTEAK

8-9



«Gure ustetan,
sortu ditugun
bertso sortak, ari
dira euren bidea
egiten»


URUMEA
ELI ETA MANEX

10



Neurri murriztaileak, Urumean bailaran

«Neurri gehigarriak» ezarri ditu Eusko
Jaurlaritzak zona gorrian dauden herrietzat.



03:00 → 02:00

Hiruretan, ordubiak

ORDU ALDAKETA

Udazkenean sartuta, ordua
aldatzeko garai iritsi da. Gaur
gauean ordubete atzeratu behar
dira ordulariak; 03:00etan,
02:00ak izango dira.

Hiru bider txapeldun, Ander eta June Balda

ASTIGARRAGA
ARRAUNA

12-13

**ZORIONAK
ATTONA PAULO!**

**100 urte!
Etxekoen partetik**

AUDITEK
Centro Auditivo • Entzumen Zentroa
HERNANI
943 386 962
Elkano Kalea, 35
www.auditekcentroauditivo.com

AUDIOLOGIAN ADITUAK
Zure entzumenaren osasuna
zaintzen dugu

- ✓ Ongi entzuten eta behar bezala ulertzen lagunduko dizugu Auditek-en, zure beharretara egokitzen diren soluzio eta tratamenduak eskainiz. Zure kasua baloratuko dugu eta soluziorik egokiena eskainiko dizugu.
- ✓ Audiometriak: haurrak nahiz helduak
- ✓ Marka guztietako audifonoen konponketa
- ✓ Audifonoak
- ✓ Akufenoak
- ✓ Entzumen-neuroestimulazioa
- ✓ Neurri-egindako tapiak

**NOAOA
BIDAIAK**

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

Ordegia:
09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

943 37 36 13 info@noaoa.eus

Ahoa estalita baina ixiltzeko asmorik gabe, bailarako abesbatzak pandemiaren aurrean

Entsaioekin hasi dira Urumea bailarako hainbat abesbatza, baina martxotik elkartu gabe daude beste zenbait. Lanean ari direnek, maskarillak eta distantzia tarreak dituzte bidelagun, nahiz eta ez den abesteko aproposena.

URUMEA ABESBATZAK

Egokitu behar izan dute abesbatzek ere, COVID-19aren pandemiak sortutako egoera berrira. Eta ahoa tresna nagusi duten arren, estalita dutela ari dira lanean, baina ixiltzeko asmorik gabe.

Urumea bailaran, entsaioetara bueltatu dira hainbat abesbatza, Hernanin eta Astigarragan; baina beste zenbaitek ez diote ekin oraindik, arriskurik ez hartzeko. Izan ere, horietan altuagoa da adin tarrea. Baina badute asmoa, batzuek lehenago eta besteek beranduago, kan-

Entsaioetara bueltatu diren abesbatzen artean, guztiak ari dira distantzia tarreak mantentzen, eta gehienak, maskarillarekin kantatzen.

tuari heltzeko berriro, badelako premisa nagusi bat: kantatzeko beharra daukate, eta abesbatza-koekin elkartzeko ere bai.

Antzeko neurriak, martxan diren abesbatza guztietan

Entsaioetara bueltatzea erabaki duten abesbatzek, beharrezko neurriak hartu dituzte horretarako. Guztiak ari dira distantzia tarreak mantentzen, bi metrokoak; eta gehienak, maskarillarekin ari dira abesten, nahiz eta ez duten derrigorrezkoa: Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek, Osalanekin batera osatu duen

protokoloan, jaso du distantzia mantenduz gero, ez dela beharrezkoa maskarillarekin abestea.

«Guk hartu ditugun neurriak, izan dira bi metroko distantzia mantentzea, eskuak garbitzea, leihoak irekita edukitzea, aulkiak desinfektatzea, eta maskarillarekin abestea», azaldu du Igor Arroyok. Hiru abesbatzatan da zuzendaria bera, Hernaniko Kantuzen, Astigarragako Aiztondon, eta Orioko Salatxon. Baita laugarren batekoa ere, Osakidetza langileena, Kantukidetza izenekoa; baina haiek ikasturtea bertan behera utzi dute.

Arroyok uste du, abesbatza gehienetan ari direla antzeko neurriak hartzen, maskarillarena barne: «nik gomendatzen dut maskarilla kirurgikoa erabiltzea. Horrekin, arnasa hartzeko garaian ez da nabaritzen hainbesteko itolarria. Egia da, ohitu egin behar duzula. Hasieran oso deserosoa da, eta orain ari dira pixkanaka trukoa hartzen».

Arroyok berak aipatu du, badirela silikonazko pieza batzuk ere, bozal modukoak, maskarillari bolumen eta espazio gehiago emateko, eta arnasa hartzeko ere toki gehiago izateko: «horrela ez zaizu maskarilla ahora itsasten. Batzuek erabiltzen dute tresna hori», azaldu du.

FFP2 motakoak, berriz, arnasa hartzerakoan deserosoagoak direla uste du Arroyok. «Denak dabilta deseroso, batzuk besteak baino gehiago, eta badira horregatik entsaioetara animatzen ez direnak. Beste batzuk, berriz, beldurratik. Nabaritu da asistentzian jaitsiera pixka bat, baina ez asko. %80 inguru izango da».



Aiztondo eta Eragiyok abesbatzetako kideak, maskarillarekin kantari, Erribera kulturgunearen inaugurazio ekitaldian.

Lokala ere, aldatu egin dute hainbat abesbatzak, haundia- goa eskatuta, distantzia man- tendu ahal izateko.

«Sentsazioa ematen dizu, bakarrik kantatzen ari zarela, taldean beharrean»

Arnasketan ez ezik, kantuaren kalitatean ere eragiten du maskarillak, Igor Arroyoren ustez: «horretara ere ohitu naiz. Egiten du sordina efektua, entzuten duzu zure ahotsa anplifikatua, gehiago. Ondokoak, aldiz, ez dituzu hainbeste entzuten. Abesbatzan, normalean talde sentsazioa daukazu; eta orain, aldiz, ematen du bakarrik ari zarela abesten. Nabaritu egiten da, maskarilla».

Gipuzkoa mailan, abesbatzen artean denetik izan da. Batzuk hasi egin dira, beste batzuk ez, hasi bai baina gelditu egin direnak ere badira... Talde txikietan egin dituzte entsaioak, batzuek, sokaka, entsaio partzialekin. «Adin gehiagoko taldeak, beharbada, ez dira hasi. Eta konpromisoak dauzkatenak, aldiz, ari dira lanean, horiek

bete egin behar direlako. Gainerakoek, presarik ez daukate. Denetik ikusi eta entzun dut», kontatu du Arroyok.

Kontzertu asko galduta, abesbatza guztiak

Aipatutako konpromiso horiek, dena den, asko gutxitu dira azkenaldian. Abesbatza guztiek atzeratu edo bertan behera utzi

«Nik gomendatzen dut maskarilla kirurgikoa erabiltzea kantatzeko, arnasa hartzeko garaian ez delako nabaritzen hainbesteko itolarria», dio Igor Arroyok.

dituzte beraien ohiko kontzertu, irteera, bidaia eta elkartrukeak. «Gauza ofizialak izan dira, Erribera kulturgunearen inaugurazioa bezala, adibidez. Gainerakoak, airean daude; asteburuan

kontzertu bat daukazu, eta ia bezperan ez dakizu azkenean joango zaren ala ez. Eta publikoak ere, ez dakizu nola erantzungo duen, kontzertua eskainita ere. Guretzat kantatzeko...».

Udaberria izaten da kontzertu eta bidai askoren garaia, eta hori galduta daukate aurten. Hurrengo hitzordua, Santa Zuziliarekin daukate gehienek, eta horren ondotik, Gabonetako ohiko kontzertuekin. Baina horiek ere, kolokan daude, batzuentzat eta besteentzat. Ez egitea erabaki dute batzuek, eta oraingoz aurrera egitea, besteek. «Ea horiek mantendu ditzakegun behintzat», espero du Igor Arroyok.

Urumea bailaran, Eragiyok abesbatzak dauka hurrengo zita, azaroaren 14an Portugaleten; baina hori ere ez dute segurua. Eta Santa Zuzilia egunerako, azaroaren 22rako, Kantuz eta Aiztondo ari dira lanean, kontzertu bana eskaintzeko. Hernani Musika Eskolak, berriz, oraindik ez du erabaki, zerbait egingo ote duen. Eta Gabonetarako ere, ziurgabetasuna da nagusi, oraingoz. **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I.
Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I.
Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani
943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



«Egoera honetan, jendea oraindik ez da animatzen»

Martxotik etenda dauka bere jarduna, Umore Ona abesbatzak; eta gutxi daude prest oraingoz, bueltatzeko.

GOIZUETA UMORE ONA

«Abesbatza paroa dago oraintxe, martxotik ez dugu ezer egin», azaldu du Juanan Lekuonak, Umore Ona abesbatzako kideak: «gure artean komentatu dugu, bueltatu ala ez. Eta ezezkorik ez du inork esaten, baina egoera honetan, oraindik ez dira animatzen. Pixka bat pasatzen denean, akaso orduan bai. Baina honek ere bere arriskua dauka, pixkanaka hozten joatekoa, denbora luzatzen bada. Eta dinamika hori galtzen bada...».

Entsaiotara bueltatzeko aipamena egin dutenean, gutxi azaldu dira prest: «Nafarroan egoerak okerrera egin duela eta, kezka ere haunditu da. Eta horrez gain, maskarillarekin abestu beharra... Elizan, guk abesten dugu bigarren pisu batean, eta bertan, distantziak mantendu behar badira, abesbatzako 32ak ez gara kabitzen, noski. Apaizarekin ere hitz egin genuen, eta berak oso beltzikusten zuen».

Azkeneko saioa, dena den, aurreko astean egin zuten, elizan bertan: «hileta elizkizun bat izan zen, eta eskatu ziguten, beste hainbatetan bezala, kantatze-



Umore Ona abesbatzako kideak, kantuan.

ra joateko. Aurreneko aldia zen pandemia hasieratik, eta taldera pasa genuen deialdia. Baina bost bakarrik animatu ginen», azaldu du Lekuonak.

Inguruko herrietan gertatzen denak ere, eragiten duela uste du berak: «Leitzan ez dira hasi oraindik, eta Hernanin Ozenki ere ez. Horrek ere eragiten du. Bestek ez badira hasi, pentsatzen duzu ea zergatik hasi behar duzun zuk».

Hilabete hauetan, hitzordu politik galduta daukagu. Eta berdin Hernaniko eta Goizuetako aurorak. Herrian urtero eskaintzen dugun Gabonetako kontzertua ere, ez dugu emanen».

«Ez da eroso, baina beti ari gara maskarillarekin abesten»

Astean bitan ari da entsaiatzen Aiztondo abesbatza: behin sokaka, eta beste behin denak elkarrekin.

ASTIGARRAGA AIZTONDO

Geldialdiaren ondoren, entsaio gutxi batzuk egin zituen Aiztondo abesbatzak, udarako etenaren aurretik; eta abuztuan hasi ziren lanean berriro, Erribera kulturgunearen inaugurazio ekitaldia prestatzeko. Herri Eskolako aretoan aritu ziren hasieran, «espazioa haundia delako»; eta Erriberan entsaiatzen dute orain, distantziak mantenduz, eskuak garbituz, leiho eta atea irekita, eta maskarillarekin: «hasieran nahiko zaila egiten zitzaigun maskarillarekin kantatzea, baina ohitu gara pixka bat. Ez da eroso, maskarilla itsasten zaigu ahoan eta sudurrean, eta ez digu uzten behar dugun arnas guztia hartzen; baina horrela ari gara kantatzen beti», azaldu du Nekane Rekondok, abesbatzako kideetako batek.

Bi entsaio izaten dituzte, astean: horietako bat, soka bakoitzak (sopranoak, tenorrak, altuak eta bajuak) bere aldetik egiten du; eta bestea, ostiraletan, denak elkarrekin: «bigarren hori, berriro Herri Eskolara mugitzeko asmoa daukagu, espazio gehiago edukitzeko. Izan ere, abesbatzako kide guztiak ari gara entsaia-



Santa Zezilia egunez kantatu nahi du Aiztondok.

tzen. Batzuek kezka erakutsi dute, baina denak ari gara elkartzen».

Horrek beharra ere badute, gainera: «gustuko dugun zerbait da, lanetik eta egunerokotasunetik ihes egiteko modu bat. Eta konfinamenduan elkartu gabe egotea, ez zen erraza izan. Baina hauxe tokatu zaigu, eta behintzat, konpartitua da, gainerakoak ere gu bezala daude».

Erribera kulturgunearen inaugurazioan kantatu ondoren, azaroaren 22an jarri dute hurrengo hitzordua, Santa Zeziliako kontzertua eskaintzeko. Eta zita garrantzitsu bat ere bazuten aurten: «abesbatzaren 25garren urteurrena dela eta, zerbait berezia egiteko asmoa genuen. Baina orain, zalantza daukagu, zer egin, zerbait txikiagoa edo...», azaldu du Rekondok.

«Martxoan gelditu ginenetik, ez ditugu entsaio gehiago egin; gurea ez da abesbatza gaztea, eta ardura haundia ematen du»

Azaroaren 8rako jarri dute hitzordua Ozenki abesbatzako kideek, erabakitzeke entsaioei helduko dieten berriro, edo oraingoz elkartu gabe jarraituko duten. «Hastekotan, gustatuko litzaidake izatea kide guztiak egonda», dio Imanol Kamio zuzendariak.

EREÑOTZU OZENKI

Pandemiaren hasierarekin bere jarduna eten, eta horrela jarraitzen du Ozenki abesbatzak. Ez dute entsaiorik egin ordutik, eta are gutxiago emanaldirik. Zita jarri dute orain, azaroaren 8an Milagrosan, abesbatzako kide guztiarekin bilera egiteko: «nik batzuekin hitz egin dut, baina denen iritzia jakin nahi dut, eta modu demokratikoan erabaki, entsaiotara bueltatuko garen, ala oraindik ez», dio Imanol Kamio zuzendariak.

«Jende asko egongo da, egoera honetan ez duena hasi nahi; baina badira hasi nahi dutenak ere. Gurea ez da abesbatza gaztea, eta hori ere kontuan hartu behar da. Beldurra ez, baina ardura haundia ematen du, eta atzera botatzen nau ni ere», dio

Kamiok. Edonola ere, hastekotan, gustatuko litzaidake izatea «abesbatzako kide guztiak egonda, eta ez gutxi batzuk bakarrik. Beraientzat eskape bat da, desiatzen daude hasteko. Baina hasi behar da baldintza batzuekin, eta arriskurik gabe. Uste dut, aurtengo negua pasatzen utzi beharko dugula azkenean...».

Maskarillaren kontua ere aipatu du zuzendariak: «maskarillarekin abesteko, nahi gabe ere, esfortzua egiten duzu, eta diafragma landu behar da. Uneoro zaude diafragma beteta, eta oxigenoa behar duzu asko, kantatzeko. Egon zaitez horrela bi ordu!».

Maskarilla jantzi bakarrik ez, distantzia ere utzi beharko lukete. Horrekin, behintzat, badute konponbidea: «Jose Luis Aperribak, Hernaniko apaizak, eskaini zidan beraien lokala,



Oraindik ez da entsaiotara bueltatu, Ozenki abesbatza.

entsaiatzeko. Sekulako detalea izan zen hori. Izan ere, guk Doinu Zale musika eskolan entsaiatzen dugu, eta han ez daukagu leku nahikorik distantziak

mantentzeko. Ia bata bestearen gainean egoten gara etal!».

«Sekulako pena» dauka Kamiok, Ozenkiko kideak ezin elkartzearekin: «familia bat

bezala gara. Nik beti esan dut, 25 urtetan, beti hartu ditudala gustura Ozenkiren entsaioak. Baina egoera honek kezka ekarri digu, eta nik ez dut inor arriskuan jarri nahi. Batzuk 80 urteren bueltan dabilta... Eta zerbait gertatuko balitzaie, ez nioke barakatuko neure buruari».

Geldialdi luze honekin, makina bat emanaldi eta zita berezi ere galdu ditu Ozenkik, 2020 urte honetan: «Llodioko abesbatza bat zen etortzeko aurrean, eta Cadreitakoak ere bai. Beste kontzertu batzuk ere bageneuzkan aurreikusita, baina aurreragorako beharko dute horiek. Gabonetan ere, urtero eskaintzen dugu emanaldi bat Musika Bandarekin, eta esan diegu gurekin ez kontaktzeko. Ea udaberri aldera edo, posible dugun martxan jartzea...», dio Kamiok.

«Markak jarri ditugu lurrean, distantzia bai edo bai mantendu eta maskarillarik gabe kantatu ahal izateko, posible denean»

Konfinamendua altxatzearekin batera bueltatu zen entsaioetara Eragiyok abesbatza; hasieran maskarillarekin, eta tarreak ondo mantenduta ondoren, maskarilla gabe, ondokoaren erreferentzia falta zutelako. Emanaldiak ere eskaini dituzte, udaratik bueltan.

ASTIGARRAGA ERAGIYOK

Konfinamenduan egon zen geldirik Eragiyok abesbatza, baina deseskalatzea hasi zenean, berehala ekin zion: «udal instalazioak zabaldu zituztenean, Udalarari esan genion bueltatzeko asmoa genuela. Esan ziguten zein ziren baldintzak, eta ordutik lanean ari gara, asteen entsaio bat edo bi eginez. Benera eskertzekoa da, erraztasun guztiak jarri dizkigula Udalak. Kultur etxe zaharretan, areto handia geneukan, eta orain Erriberan ere, distantzia mantentzeko arazorik ez daukagu», azaldu du Javier Oyarzunek.

Maskarillarekin hasi zituzten entsaioak: «baina nabaritzen genuen, falta genuela ondo-

koaren erreferentzia, taldean kantatzeko. Eta pentsatu genuen, lasaiago kantatzeko maskarilla gabe aritu beharko genukeela, baina horretarako, derrigor, distantzia mantendu behar genuela. Eta horrela ari gara, betiere tarrea uzteko aukera badago».

Erreferentzia faltarekin batera, maskarillak abestea ere oztopatzen du, Oyarzunek dioenez: «maskarilla kirurgikoak, ahoan itsatsita geratzen dira; eta aldiz, FFP2 motakoekin, ahotsa ez da ateratzen, eta askoz ere gehiago behartzen duzu. Eta hori, segun eta zer abesten duzun eta nola atera behar duzun ahotsa, oso nekagarria da».

Entsaioak ez ezik, emanaldiak ere eskaini ditu Eragiyok, pandemia hasi zenetik. Uztai-



Eragiyok abesbatzako kideak, aurreko astean, Groseko San Inazio elizan.

lean, esaterako, Santiotan online eskaini zuten emanaldia, aurrez grabatutakoa, herriko hainbat txokotan. Eta irailean, Erribera kulturgunearen inaugurazio ekitaldian kantatu zuten, maskarillarekin: «herriko beste talde batzuekin batera aritu ginen, eta jende asko ginenez, maskarilla jantzita abestu genuen». Joan den astean, aldiz, Groseko San Inazio elizan eskaini zuten kontzertua: «gu bakarrik ginenez eta elizako aldarea nahiko haundia

denez, maskarillarik gabe aritu ginen. Markak jarri genituen lurrean, eta besoak zabaldua, ez genuen elkar ikutzen».

Hurrengoa, azaroaren 7rako zeukaten aurreikusita, Pasai Donibanen; baina bertan behera geratu da. Momentuz aurrera dijoana, hilaren 14an Portugalen daukatena da, otsote formatuan. «Baina ikusiko dugu, unean-unean hartzen baitituzte erabakiak». 2020rako, hamar bat kontzertu zeukaten aurreiku-

sita, eta erdia ere ez dituzte eskainiko. Astigarragan kantatzen bukatu nahi dute urtea, eta hala daukate iragarrita, abenduaren 12rako: «azkenean egitea posible izango den, batek daki...». Erriberako auditorioan kantatzeko «desiatzen» daude, behintzat.

Kontzertu egunak, dena den, ez dira lehen bezalakoak: «normalean, kontzertu baten ondoren, zoaz soziedade batera, taberna batera, buelta bat ematera, poteatu eta kantatzen jarraitzen... Orain ez da posible, eta hori ere abesbatza baten bizitzaren parte da. Elkartzen gara kantatzea gustuko dugulako, baina baita ere harremana izateko eta giro ona daukagulako. Eta hori guztia galtzea, gogorra da».

Edonola ere, Oyarzunek dio «oso garrantzitsua» dela, ahal den heinean, kultur ekintzak mantentzen saiatzea, eta «erakundeek eta antolatzaileek horren aldeko apustua egitea. Gu prest gaude segurtasun neurri guztiak hartzeko, eta dendak eta tabernak behar diren bezala, kultura ere beharrezkoa da».

«Zortea daukagu, Milagrosan espazio nahikoa dagoelako, distantziak mantentzeko; baina maskarillarekin ari gara beti»

Konfinamendua bukatzearekin batera, ekainean ekin zion entsaioei, Kantuz abesbatzak, Udalaren baimenarekin: «lurrean markak daukagu, maskarillarekin abesten dugu, aulkiak desinfektatu, leihoak eta atea ireki... Gehiago ezin dugu egin».

HERNANI KANTUZ

Neurri guztiak hartuta, baina ekainetik ari da lanean, Kantuz abesbatza: «konfinamendua kendu zutenean, hasi ginen entsaioekin. Beti oinarritzen gara Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak ematen digun informazioan, jakiteko zein protokolo jarraitu behar dugun, Osalanekin harreman zuzena baitute beraien. Eta beraien gomendioak jarraituz hasi ginen, Hernaniko Udaleko Kultura Sailaren baimenarekin», azaldu du Pilar Munduate lehendakariak.

Astelehen eta asteazkenetan egiten dituzte entsaioak, Milagrosan: «zortea daukagu, espazio nahikoa dagoelako, distantziak mantenduta abesteko. Baina kantatu ere, maskarillarekin egiten dugu, nahiz eta abesbatzen elkarteak esan digun, distantziak mantenduz gero abestu daitekeela maskarillarik gabe.

Dagoeneko ohitu gara, hilabeteak daramazkigulako. Eta hala behar badu, hala egingo dugu. Okerragoa da abestu ezinik egotea. Eta nahiago dugu maskarillarekin abestu, ez abestu baino. Hainbeste gustatzen zaigu kantatzea, ezingo genukeela egon hori gabe. Gainera, akaso ona ere bada maskarillarekin abestea, guxtiago entzuten zaigulako!», dio Munduatek barrez.

Distantzia eta maskarillekin batera, gainerako neurriak ere hartzen dituzte: «Milagrosara sartzeko, maskarilla berri bat ematen diogu bakoitzari, eta gel hidroalkoholikoarekin garbitzen ditugu eskuak. Lurrean gurutze batzuk daude markatuta, jakiteko non jarri behar duen bakoitzak, tarrea uzteko. Milagrosako goiko leihoak eta atea zabalik edukitzen ditugu. Eta entsaioen aurretik eta ondoren, aulkiak desinfektatzen ditugu. Gehiago ezin dugu egin».



Kantuz abesbatza, joan den urteko Kantuz Egunean. Aurten online egin dute.

Abesbatzako kide guztiak ez dira joaten entsaioetara, dena den: «taldeko batazbesteko adina nahiko altua da, eta batzuk

ez dira etortzen, arriskurik ez hartzeko. Abesbatzen elkarteak emandako informazio guztia, taldeko kideei helarazten diegu;

eta horren arabera, bakoitzak erabaki du azaldu ala ez. 65 urtetik gorakoak badaude, edo tratamenduren bat dutenak».

Ekainean ekin ziotenek, geldialdia egin zuten udaran berriro, eta irailean bueltatu ziren entsaioetara. Ez dute emanaldirik eskaini oraindik, baina datorren hilerako, azaroaren 22rako, badaukate hitzordua, Santa Zuzia eguna ospatzeko: «San Joan Bataiatzailea parrokiaren izango da, eta eliz musika kontzertua eskainiko dugu, COVID-19aren ondorioz hil diren guztiak gogoratuzko», aurreratu du.

Orain artekoak, ordea, galdu dituzte dagoeneko: «zarzuela emanaldi bat eskaini behar genuen aurten, eta Parisko Euskal Etxera bidaia geneukan prestatua. Hori guztia bertan behera geratu da. Baina lehentasuna zen abesbatza mantentzea, eta aurrerago ikusiko dugu», nabarmendu du Munduatek.

«Asko aldatu da egoera, udaratik orain arte»

Ekainean eta uztailean arituzen Kantuban, kontzertu bat prestatzen; eta aste honetan bueltatu da entsaioetara.

HERNANI KANTUBAN

Aste honetan bueltatu da entsaioetara, Kantuban abesbatza. Baina hori ez dute aurreneko kantu saioa izan, pandemia hasi zenetik: ekainean eta uztailean lanean aritu ziren, abuztuaren 9ko kontzertua prestatzeko. Donostian abestu zuten, Txistularien Alardean.

Geldialdia egin zuten horren ondoren, eta duela hilabete ziren bueltatzekoak, baina aste honetara arte ezin izan diote ekin: «batek ezin zuela, bestea konfinatuta, beste bat sukarrarekin...», azaldu du Alain Ayerdi zuzendariak. Astean behin entsaiatuko dute, Urumea Herrigunean: «areto handia daukagu, eta gu ere ez gara asko; beraz, distantzia mantendu dezakegu arazorik gabe, eta uneoro daukagu aireztatuta, leihoak irekita. Baina maskarillarekin ari gara kantatzen. Uztailean oraindik kostatzen zitzagun maskarillarekin abestea, baina orain ez dago zalantzarik horrekin», dio Ayerdik. Izan ere, «asko aldatu da egoera, udaratik orain arte», zuzendariaren ustez: «beldur gehiago dago».

Donostiako hori izan da, pandemiaren hasieratik eskaini duten kontzertu



Kantuban, Gabonetako kontzertu batean.

bakarra: «hiru dauzkagu aurreikusita, orain. Gabonetan, kontzertu xume bat eskaini nahi dugu Hernanin. Urtarrilean, Donostiako txistulariek eskatu digute beraiekin parte hartzeko, kontzertu batean. Eta otsailerako, azken urteotan bezala, sagardotegi batean abestea daukagu buruan, baina ez dakigu egokia izango den, egoera honetan, sagardotegi batean sartzea 15 laguneko abesbatza. Ez dakigu hiru emanaldi horiek egin ahal izango ditugun, dena den. Aurreneko biak egiterik badugu, pozik».

Izan ere, egoera etengabe aldatzen ari dela nabarmendu du Ayerdik: «egunetik egunera aldatzen da eszenatokia, eta hasten da entsaio berri bat, horretara egokitzeko. Ez dakigu kontzerturik eman ahal izango dugun, edo datorren astean bildu ahal izango dugun ere».

«Entsaioak Goiz Eguzkiko tabernan egitea da asmoa»

Udalaren baimenaren zain dago Goiz Eguzki abesbatza, animatzen diren kideekin entsaiatzeko, talde txikian.

HERNANI GOIZ EGUZKI

Ez da entsaioetara bueltatu oraindik, Goiz Eguzki abesbatza; baina badirudi gertu dagoela hasiera: «lokal aproposaren bila aritu gara, eta egoitzako taberna iruditu zaigu egokiena. Astelehen arratsaldetan egingo genituzke entsaioak, taberna itxita dagoela, talde txikian. Udalaren baimenaren zain gaude orain, hasteko», azaldu dute Joxan Mitxelenak eta Javier Arraztiok: «oso ondo aireztatu daiteke lokala, leihoak dituelako buelta guztian; eta espazioa ere handia da, distantziak mantentzeko. Pozik beteko ditugu neurri guztiak, eta maskarillarekin kantatuko genuke. Horretarako ez daukagu arazorik. Gehiago da psikologikoa, berez sortzen duen arazoa baino».

Bi inkesta egin dituzte pandemia hasi zenetik, jakiteko abesbatzako kideak prest dauden entsaioetara bueltatzeko: «57tik, aurrenekoan hamabik eman zuten baiezkua, eta duela bi aste, bigarrenetan, hemezortzik», diote. Baimena jasoz gero, horiekin hasi nahi dute: «jendeak behar du etxetik atera eta besteekin elkartzeko, eta hori da garrantzitsua. Gaizki kantatzeak, berdindio».



Goiz Eguzki abesbatza, Gabonetako saioan.

Agian sokak desorekatuta egongo dira, batean hiru-lau, bestean sei-zazpi... Baina helburua da harremana izatea eta giro ona ez galtzea», diote.

Baina badakite, kontu berezia izan behar dutela: «arrisku taldekoak gara abesbatzakoak. Gazteenak 64 urte izango ditu, eta 74 urtekoa izango da batazbestekoa». WhatsApp bidez mantendu dute harremana orain arte, abestiak bidaliz, urtebetetzeetan elkarri kantatuz...

«Zain gaude, ea noiz bueltatu gaitzkeen. Abesbatzarekin jarraitu egingo dugulako, hori seguru», adierazi dute. Eta bitartean, emanaldi eta elkartrukeak galdu dituzte aurten; eta baita kontzertu berezi bat ere: «ekainean eskaini behar genuen, Goiz Eguzkin, eta lan asko ari ginen egiten, prestatzeko. Izugarritzko pena da, baina egoerak hala agintzen zuten».

«Maskarillarekin, gehiago izerditzeko duzu, eta gehiago nekatzen zara; astea bukatzean, nabaritu egiten da hori»

Ikasturtearekin batera hasi ziren lanean, Hernani Musika Eskolako abesbatzak: bai Dakapo, eta baita haur eta gaztetxoek ere. «Distantziak mantenduta ere, maskarillarekin ari gara; 'ensalada' handia dago talde hauetan», dio Amaia Aldalurrek.

HERNANI DAKAPO

Jarduera ia etenda amaitu zuen aurreko ikasturtea, Hernani Musika Eskolak; eta bereziki abesbatzek, «ezin genuelako telematikoki entsaiatu», eman du aditzera Amaia Aldalurrek, eskolako abesbatza guztien zuzendariak. Ekainean egin zuen bere saiotxoa Dakapo abesbatzak, San Joan jaietako preludeoak behar zuenean: «kalean aritu ginen kantari, Sandiusterriko atarian adibidez; eta izan genuen aukera, zerbait egiteko behintzat».

Entsaioetara, ordea, ikasturte berriaren hasierarekin bueltatu dira. «Ostiral arratsaldetan entsaiatzen dugu, ordu eta erdi, distantzia mantenduta eta maskarillarekin. Ez da batere eroso, baina horrelako taldeetan nahasketa handia dago:

unibertsitateko ikasleak, gazte asko, irakasleak... *Ensalada* handia dago, nolabait esateko. Berez, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak Osalanekin prestatu duen protokoloak dio, distantziak mantenduz gero ez dela derrigorrezkoa maskarillarekin abestea. Baina ez gara ausartzen. Horrelako talde batean positibo bat egonez gero, nahasmena handia litzateke. Martxa normalean ari gara Musika Eskolan, baina alerta guztiekin».

Dakapon ez ezik, Musika Eskolako abesbatza guztietan ari dira horrela: «hasieran pila bat kostatzen zitzaidan, maskarillarekin asko erretenitzen delako. Baina orain, ohitu egin naiz, edo asumitu dut. Asko izerditzeko duzu, eta ari zara arnasten zuk botatzen duzun anhidridoa. Hori ez da oso gomendagarria. Izerdi-



Sandiusterrin aurrean kantatu zuen Dakapok, San Joanetako preludeo zela eta.

tzen duzu gehiago, eta nekatzen zara gehiago; astea bukatzean asko nabaritzen da nekea. Baina tira, hori ez zaigu gertatzen abesten dugunoi bakarrik. Egia esan,

abesbatzei min dextente egin die aerosolaren kontuak. Eman digute egurra, baina konprobatu da abesten duzunean haizea ez dela ateratzen, ahots kordak itxi

egiten direla eta bertan geratzen dela», azaldu du.

Ikasle gaztetxoek Milagrosan entsaiatzen dute, «ondo aireztatuta», horiek «talde handiak» direlako. DBHkoak eta Dakapo, aldiz, Musika Eskolan ari dira. «Oso helduak dira Dakapokoak, horretarako. Taldeko kide batek, adibidez, izan zuen unibertsitatean gelakide baten positiboa; eta nahiz eta ez zuen gertuko, badaezpada ere entsaioetan atzetan jarri zen, aldentuta».

Entsaioak bai, baina emanaldirik ez daukate buruan: «Santa Zezilia eguneko emanaldiak prestatzen behar genuen orain, baina oraindik ez gara bildu, erabakitzeko zerbait egin ala ez. Kontua da, Hernanin bertan ez daukagula lekua, horrelako zerbait egiteko. Biteri oso txikia da, eta ikasleekin tokia behar duzu».

Neurri zorrotzagoak ezarri dira Hernanin eta Astigarragan

Taberna eta saltokiek 21:00etan itxi beharko dute eta mugikortasuna murriztea gomendatu dute.

URUMEA COVID-19

Joan den larunbatean ezarritako neurriez gain, Eusko Jaurlaritzak *zona gorrietan* dauden edo 14 egunetan metatutako intzidentzia tasa altua duten 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan «neurri gehigarriak» ezarri ditu. Urumea Bailarako Astigarraga eta Hernanin era- gin die erabaki honek, alerta gorrian baitaude bi herriak. Astigarragaren intzidentzia-tasa

987,06koa da 100.000 biztanleko eta Hernanikoa, berriz, 744,52-koa.

EAEko aldizkari ofizialean argitaratu ziren neurri gehigarri horiek, atzo eguerdian. 25 udalerrietan zuzendutakoak dira neurri horiek: bost Bizkaikoak eta hogeitaz Gipuzkoakoak, eta herri horietan zorrotzagoak izango dira koronabirusaren hedapena saihesteko neurriak. Alerta gorrian dauden 25 herri horietan herritik ez ateratzeko eta herrira ez sartzeko aholkatu dute, ohiko salbuespenetan izan ezik.

Eta horretaz gain, ezinbestekoak ez diren gizarte jarduerak eta elkartzeko gomendioa ere egin du Jaurlaritzak herri horietarako, jarduerak eta mugikortasuna ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin.

Neurri orokorrak, 25 udalerrietan

Bertan behera uzten da taldeko edozein kirol-jarduerak, martxan dauden kirol-lehiaketa ofizialak izan ezik. Ondorioz, kirola bakar- ka soilik egin ahal da. Bestalde, debekatuta dago 21:00etatik 06:00etara haur-parkeak, parke publikoak eta plazak erabiltzea, pertsonen joan-etorrietarako izan ezik. Saltokiek, berriz, itxi- ta egon behar dute 21:00etatik 08:00etara, hauek izan ezik: elikadura establezimenduek, farmaziek eta erregaia zerbitzatzen dutenek. Gainera, tarte horretan ezingo dute alkoholik saldu den- detan.

Taberna eta jatetxeek ere gaueko 21:00etan itxi beharko dituzte ateak, datorren eguneko 08:00ak arte. **K**

Ereñotzun bizi den Paulo Errazkin hernaniarrak 100 urte bete ditu gaur

Udal ordezkariak ezingo du bere baserrira joan eta, beraz, Xabier Lertxundi alkateak hernaniarren izenean pantaila bidez zorionduko du Errazkin.

HERNANI-EREÑOTZU

PAULO ERRAZKIN ZURIARRAIN

1920ko urriaren 24an jaio zen Paulo Errazkin Zuriarrain, Hernanin. Egun Ereñotzun bizi da, Añarregi baserrian, familiarekin batera. Baserriaren bueltan bizi izan da beti Paulo, ganadua zaintzen. Etxean hazitako produktuak herriko plazan saltzen zituen.

Candida Setien zenarekin ez-

kondu zen eta harekin lau seme- alaba izan zituen. Haietaz gain, hiru bilobek eta beste hiru birbilobek osatu dute familia. Baserriko gizona izanda, beti eskuak okupatuta izaten ditu Paulok. Intxaurrek eta hurrak txikitzen aritzen da eguraldi epel dagoenean, baserriaren kanpoaldean.

Ospakizun jendetsuagoa zekukaten buruan senideek, ba-

serri inguruko bizilagunak eta senitarteko ugari elkartzea baitzen asmoa, baina COVID-19ak hala behartuta, gertuko familiarekin ospatuko dute Pauloren 100 urteko ibilbidea.

Pandemiaren ondorioz ere, Hernaniko udal ordezkariak ezingo du baserrira bertara joan ohiko bisita egitera. Egoera berezi honetan lore-sorta bat bidaliko zaio etxera eta horrekin batera, bideo bat. Pantaila bidez bada ere, alkateak hernaniarren izenean zorionak bidaliko dizkie Paulo berari eta haren gertukoei. **K**

Lapurreta izan zen ostegun gauean, Harresi tabernako biltokian

Gertaeraren gaineko salaketarik ez da izan oraindik, baina egonez gero, ikerketa irekiko duela adierazi du Hernaniko Udaltzaingoak.

HERNANI GERTAERA

Atzo eman zen jakitera ostegun gauean gertatutako berria. Kale Nagusian dagoen Harresi tabernako biltokian lapurreta izan zen, eta atzo eguerdian Ertzaintza eta Udaltzaingoa gerturatu ziren bertara. Ordu gutxitara zabaldu zen gertaera herrian, baina Udaltzaingoa Kronikari jakitera eman dionez, oraindik ez du inork salaketarik jarri.

Hori horrela, ez dute ikerketa ireki oraindik. Halere, salaketa jarritz gero kasua aztertuko dutela adierazi dute.

Vodafone telefono dendaren parean dago tabernako biltokia eta antza denez, ondoko portaletik sartu eta almazena hustu zieten tabernakoei. Nonbait biltokia eta etxeko portala konektatuta daude, eta lapurrak bertatik sartu ziren. Esan moduan, salaketarik ez dute jarri, baina

ertzainak eta udaltzainak lanean ari dira, gertatutakoaren berri izateko.

Ostegunean izandako gertaera horretaz gain, azkenaldian ere hainbat lapurreta izan dira herrian. Duela aste batzuk auto bat lapurtu zuten Atzieta kalean, eta abandonatuta agertu zen ordu batzuk geroago, hainbat kolpe larriekin. Eta Andre Kalen ere lapurreta izan zen denda batean, duela hilabete inguru. **K**

Autoenplegua sustatzeko dirulaguntza eskatzeko epea urriaren 31n bukatuko da

GOIZUETA DIRULAGUNTZAK

Goizuetan 2017ko urriaren 1etik jarduerak ekonomikoa martxan jarri duten herritarrek dirulaguntza eskatu ahal izango dute Udalean. Izan ere, Goizuetako Udalak *Goizuetan autoenplegua sustatzeko dirulaguntza banan-banako ebaluazio araubidean ezartzen duen ordenantza* onartu zuen. Hori horrela, dirulaguntza eskuratu ahal izango dute Goizuetan norberaren kontura aurrez aipatutako datatik jarduerak ekonomikoen gaineko zergan alta emanda duten bizilagunek.

Ez da mezarik ospatuko hilerrian azaroaren lehen, pandemiaren eraginez

ASTIGARRAGA ELIZA

Andre Maria Zeruratze parrokiaren hartu den erabakiaren arabera, ez da aurten mezarik ospatuko hilerrian azaroaren lehen, osasun egoera larriaren ondorioz. Horregatik, igandean, parrokiaren izango da meza 10:30etan eta astelehenean ez da mezarik izango. Bestetik, Caritasetik herritarren aldetik urte hauetan jaso duten laguntza eskertu nahi dute eta pandemia egoeratik, arropa ez eramatea eskatu dute.

Goizueta eta Hernani arteko errepidea zabalik da honezkero

GOIZUETA-HERNANI ERREPIDEA

Bi herrietako Udalek jakinarazi dute Goizueta eta Hernani lotzen dituen NA-4150 errepidea ireki dutela. Joan den asteazkenean itxi egin behar izan zuten, Latxen kable bat erori zelako eta konponketa lanak egin behar izan zituztelako. Orain, berriz, errepidea ireki dutela baieztatu dute.

Salgai dago gabonetako loteria, herriko hainbat elkarteetan

HERNANI ZOZKETA

Jada eros daiteke gabonetako loteria: EAJ-PNVrena Orkolaga 19ko egoitzan eros daiteke; Xalaparta Elkartearen zenbakia salgai dago Lete administrazioan; eta Berriak elkartearena Kardaberazeko egoitzan.

LOO haur antzerkia, larunbatean

Salgai daude honezkero haur-antzerkirako sarrerak, Biteri kultur etxean.

HERNANI KULTURA

Kultur programazioaren barruan, salgai daude jada LOO antzerkirako sarrerak 3 euroan. Datorren larunbatean izango da Biterin, eta edukiera mugatua denez, bi saio izango ditu antzezlanak. 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat dago zuzendua, eta beharrezkoa da umeak heldu batekin etortzea.

Loo esaten zaio Indiako zonalde bateko haize indartsu, bero eta lehorrari. Elementu hori irudikatuz, Loo du izena antzezlan honen protagonistak, eta bere lan gogorraren ikuspelgia erakusten du ikuskizunak: basamortuko dunak bultzatzea eta gune hezeak, oihanak eta ozeanoak suntsitzea. **K**

LURDES HUIZI PERURENAREN FAMILIAREN IZENEAN. ESKERRIK ASKO

*Suhiltzaileen agurra
aparta bezain txukuna,
edo bere lankideek
jarraian aze jarduna.
Lagun batek egindako
irakurketa leuna
aipatuz Lurdes zutela
bihotzez lagun kuttuna.
Auresku ikusgarria,
denok hunkittu gaittuna,
gitar ta bertso doiñuek
argituz egun illuna.
Eskerrikasko guztioi,
hori da elkartasuna!
bihotzetik bihotzera,
zuei gure maitasuna.*

Lurdes Huizi Perurenaren familia

Argazki lehiaketa jarri dute martxan Arano eta Goizuetan, Bhutanen baitan

'Zaintza pandemia garaian' da lehiaketaren izenburua eta 15 urtetik gorako aranoar eta goizuetarrentzat dago zuzendua.

ARANO-GOIZUETA KULTURA

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano prebentzio programak eta berdintasun zerbitzuak, argazki lehiaketa bat antolatu dute Goizuetako eta Arano 15 urtetik gorako biztanleei zuzendua.

Bhutan proiektuaren baitan garatutako ekimena da. *Zaintza pandemia garaian* izeneko lehiaketa honetan konfinamenduan eta orokorrean testuinguru berri honetan zaintzak bizitzaren sostengurako zenbaterainoko garrantzia izan duen, duen eta izango duen islatzea da helburua.

nagusia. «Argazkien bidez Goizueta eta Arano eman diren zaintzak, tratu onak eta horrek herri bezala dakartzan baloreak argitara atera nahi ditugu», azaldu dute antolatzaileek.

Zaindu eta zainzaile papearak inoiz baino nabarmenagoak izatera eragin du COVID-19ak eta kontziliazioa, tratu onak, komunikazioa, elkarbizitza eta elkartasuna bezalako hitzen indarrak herritarren behar eta nahietan noizteza eragin du. Horregatik, diote, bizitzarako lehentasunak balore horietan oinarritzen direla «argi» geratu dela, eta horren

baitan antolatu dute lehiaketa.

Azaroaren 12a, lanak aurkezteko azken eguna
Argazkiak *lagatratuonak@gmail.com* helbidera bidali beharko dira urriaren 22tik azaroaren 12ra bitarte eta parte-hartzaile bakoitzak bi argazki aurkezteko aukera izanen du.

Parte-hartzaile guztien artean bi sari potolo egonen dira jokoan. Batetik, epaimahaiak aukeratuko duen irabazlearen saria: Elgorriagako bainuetxean ibilbide termala, bazkaria eta masajea 2 pertsonentzat. Eta bestetik, sari parte-hartzaile, zozketa bidez parte-hartzaile guztien artean erabakiko dena. Azken hau 2 pertsonentzat ibilbide termala izanen da, Elgorriagako bainuetxean. **K**

Osakidetzako azpikontratetako langileek greba, azaroaren 5ean

3 greba egun deitu zituzten Osakidetzan, eta bigarrena Gipuzkoan izango da.

URUMEA GREBA

ELA, SATSE, SME, LAB, CCOO, UGT, ESK, SAE, UTESE sindikatuek hiru greba egun deitu zituzten Osakidetzan, osasun publikoaren egoera «larria» dela salatze-ko eta Osasun Sailari neurriak eskatzeko. Lehena urriaren 29an izan zen Araban, eta hurrena azaroaren 5ean izango da, Gipuzkoan. Azken greba eguna azaroaren 12rako deitu dute, Bizkaian.

Joan den asteazkenen prentsaurrekoa egin zuten bederatzita sindikatu deitzaileek Bilbon, eta mobilizazio berriak iragarri zituzten. Salatu zuten ez dagoela



Sindikatu etako ordezkariak, joan den eguneko prentsaurrekoan, Bilbon,

«neurri zehatzik» Osakidetzak dituen «egiturazko arazoak» konpontzeko. Hori horrela, Osakidetzako Garbiketa, Osasun Garraio eta sukalde zein kafe-tegietako langile azpikontratatuak greba deialdia egin zuten langileei mobilizatzeko deia luzatuz.

LAB sindikatuak jakitera eman zuenez, deialdi honen bi-

dez langileek bizi duten egoera salatu nahi dute: ez dagoela langile nahikorik, lanpostu hutsak edota aldi baterako ezintasun zein oporrak ez direla ordezkatzeko, ez dagoela segurtasun-neurririk eta kolektibo batzuetan soldata-baldintza eskasak daudela. Egiturazko defizit hori areagotu egiten da bizi dugun pandemia egoeran. **K**

Zaintza lanei buruzko jardunaldiak atzeratzea erabaki dute

HERNANI BERDINTASUNA

Atzo ziren hastekoak, eta gaur izan behar zuten segida, *Zaintza lanei demokratizaziorantz* jardunaldiak. Baina atzeratzea erabaki dute, Koronabirusaren pandemiak azken egunetan izan duen bilakaera ikusita. Sei lagunetik gorako bilerak ez egitea gomendatu du Eusko Jaurlaritzak, eta egoera gorrian dauden herrien kasuan, Hernanin bezala, etxetik ez ateratzea ere bai. Hori horrela, atzo ez zen zaintza lanei buruzko saiorik izan Milagrosan, eta gaur ere ez dute egingo, Biterin egitekoa zena. Egoerak uzten duenean berreskuratuko dira atzoko eta gaurko bi saioak.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **XANTI JAUREGI ARTOLA**
2020ko irailaren 4an hil zen, 83 urte zituela.

ETA BERE EMAZTEAREN I. URTEURRENA
MAITE MENDILUCE PAGOLA
2019ko urriaren 19an hil zen, 80 urte zituela.

- Goian bego -

Seme-alabak: Kepa eta Nekane, Tere eta Igor; bilobak: Enaitz; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **HAMABIETAN, JOAN BATAIATZAILERAEN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko urriaren 24an

ESKERTZA
Santos Barrio Sagastume

Santos en emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaren guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko urriaren 24an

V. URTEURRENA
Agustin Rubio Polo
2015eko urriaren 24an hil zen, 67 urterekin

Nahiz eta denborak aurrera egin, beti zaude gurekin.

ETXEKOAK

Hernanin, 2020ko urriaren 24an

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Elkarte gastronomikoak ixteko neurria indarrean da, eta Urumea bailarako herriek «zorrotz» bete dute

Pasa den asteburuan, pertsonen mugikortasuna eta jende pilatzeak gehiago mugatzeko neurriak iragarri zituen Eusko Jaurlaritzak. Atzo berriz neurri zorrotzagoak jarri ziren indarrean.

URUMEA ELKARTEAK

Kasu positiboen gorakada nabarmena antzeman da azken denboraldian. Hori horrela, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai eta Nafarroan neurri zorrotzak jarri dira.

Nafarroaren kasuan, irai-

laren 11n jarri zen indarrean elkarte gastronomikoak ixteko agindua ematen zuen foru legea. Hortaz, Urumea bailaran dauzkagun Goizueta eta Aranok elkarteak itxi egin behar izan zuten pasa den hilabetean.

Txokoez gain, Nafarroako egoerak okerrera egin duela

kontuan hartuta, Nafarroa ixtea erabaki zen, «pandemiaren bigarren olatuari aurre egiteko asmoz». 14 egunez, azaroaren 4ra arte, Nafarroan sartzea edo irtetea galarazita egongo da, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta tabernak eta jatetxeak itxita egongo dira.

EAEn, neurri zorrotz gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoan ere hainbat neurri jarri ziren indarrean atzo, haien artean elkarte gastronomikoen itxiera. Hernani, Astigarraga eta Ereño-

tzuk bat egin dute neurri hauekin, eta jadanik itxita daude.

Horrez gain, Osasun Sailak egoera epidemiologiko larria duten 25 herri horietarako zenbait «gomendio orokor» eman ditu, herri horietako jarduera eta mugikortasuna ahalik eta gehien murrizteko helburuz. Elkarte gastronomikoak ixteaz gain, tabernetarako eta jatetxeetarako ezarritako neurriak ere indarrean daude, hau da, 21:00etatik 08:00etara itxita.

Gipuzkoako gainerako herrietan beste hainbat neurri

sartu dira indarrean, gehienak joan den astean iragarritakoak: besteak beste, edukiera %50era murriztea jarduera guztietan, ostalaritzan, kultur ekitaldietan, gurtza lekuetan eta abarretan, txokoak eta elkarte gastronomikoak ixtea, eta tabernak eta jatetxeak gauerdian ixtea.

Hala ere, Urumea bailarako herrietako elkarte gastronomikoak itxita daude, batzuk duela hilabetetik, beste hainbat duela aste betetik eta beste batzuk atzotik. Elkarteek itxiera hauen berri eman digute. **K**

«Herri txikia da Goizueta, hemen ez dago jatetxe haundirik, eta elkarteak ixteak tristura eragiten du herrian»

Goizuetan ere, Nafarroako beste hainbat herrien antzera, Umore Ona Elkarteak itxi egin zen irailean, Nafarroako Foru Legea indarrean jarri zenean, hain zuzen.

GOIZUETA UMORE ONA ELKARTEA

Goizuetan hain maitea den Umore Ona Elkarteak, irailean itxi zen, Nafarroako Foru Legeak jarritako neurriak indarrean jarri zirenean.

Goizuetako Udalak, Foru Legeak ezarritako neurriak aplikatzeko agindua eman zuten, «denen arteko bilera bat

egin genuen, eta ixteko erabakia bertan hartu zen».

Goizuetan, beste herrietan bezala, eragin kaltegarriak izan ditu herriko elkarteak ixteak, «alde batetik, antolatutako ekintzak ezingo direla egin. Izan ere, Goizuetako Umore Onak baditu baitan hainbat talde; mendikoa, abesbatza, txapelketak... eta hauen

ospakizunak elkarteetan bertan egiten genituen. Orain ez da horrela, bertan behera gelditu dira denak. Eta beste alde batetik, eragin ekonomikoa, diru iturririk ez dugula izanen».

Orain arte ezarritako neurriak zorrotz bete dira, elkarteak gainera sekziotan banatu dute goizuetarrek, herritarren segurtasuna bermatze aldera.



Umore Ona Elkarteak beteta, pandemiari gabeko garaian.

«Lehenago ere ez zen mugimendu haundirik izaten San Roke Elkarteetan, orain are gutxiago, elkarteak ateak itxita baitaizka»

Aranon, irailaren 11n, sartu ziren indarrean Nafarroako foru legeak hartutako neurriak, eta geroztik, «herritarrek bete egin ditugu arauak».

ARANO SAN MARKO

Irailetik dago Aranoko San Marko Elkarteak itxita, izan ere, irailaren 11an, Nafarroako Foru legeak hainbat neurri hartu zituen, eta haien artean «elkarteak ixteko agindua eman zen. Gainera, 500 biztanle baino gutxiagoko herrietan, ez badago ez kafetegi ez tabernarik, Elkarteak irekita jarrai dezake, hala ere, Aranoren kasuan ez da horrela izan, badagoelako bai taberna eta baita kafetegi ere».

San Marko Elkarteak beraz, neurriak jarri zirenetik itxita egon da, eta oraindik ere itxita

jarraitzen du, egoera hobetu arte. Gainera «herritarrek asko errespetatu dute, eta noski faltan botatzen dugu, baina osasuna dago jokoan, beraz zentzuarekin ari gara jokatzen». San Roke ixteko erabakia Udalak eman zuen, eta «zuzendaritzakoak jakin bezain laister, bazkideei komunikatu zien, eta itxi egin zuten».

San Roke Elkarteak, asteburuko elkargune gisa definitu dute aranoarrek, eta jakinarazi dute, «elkarteetan neurriak zorrotz» bete direla orokorrean. «Aranoko Elkarteak gainera ezin da Hernaniko batekin alderatu, hemen astean zehar ez

da bazkari ez afaririk egiten. Larunbatetan afari bat egin ohi da, eta astean zehar herriko taberna itxita badago, elkarteetan pote bat hartzen du jendeak, baina orokorrean ez dago mugimendu haundirik, gehienez 5 pertsona bilduta. Orain aldiz itxita dago beraz, ezer ere ez. Herrian tristura apur bat sortzen du honek».

San Roken, aipatu moduan, zorrotz bete dira ezarritako neurriak, hala nola, maskarilen erabilera, mahaietako distantziak, gel desinfektanteak, pertsonen arteko distantziak ere, higiena, eta beste hainbat gehiago.



San Roke elkarteetako mus txapelketan herritarrek, aurreko urtean.

«Argi geneukan Santa Barbara itxi egin beharko genuela herritarren osasunagatik, eta egoerak hala behartuta»

Eusko Jaurlaritzak, atzo indarrean jarri zituen hainbat neurri, eta haietako bat elkarte gastronomikoen itxiera zen. Hernaniko elkarteek, Urumea bailarako beste hainbat herrien moduan, bat egin dute eta atek itxi behar izan dituzte.

HERNANI SANTA BARBARA

Hernaniko Santa Barbara Elkarteak, argi dauka, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriekin bat egingo duela, herritarren eta bertako bazkide zein langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko. «Egoera ikusita eta Hernanin positiboek gora egin dutela jakinda, erabaki argia da gurea, elkarte ixtea, hain zuzen».

Erabaki hau hartzeko, Santa Barbara Elkarteak zuzendaritza bildu egin zen ostegun arratsaldean, «gure distantziak hartzen ditugu, ez gara denok elkartzen, bi mahaie-

tan jartzen gara, sartu bezain laister eskuak garbitze ditugu eta maskarilla aldi oro jarrita daukagu».

Kontrol zorrotzak eramango ditu aurrera Santa Barbara elkarteak, «ateak itxiko ditugu, eta horren kontrola eramango dugu, beharbada garbitzaileak bertako mantenua eginez. Honela jendea ez da sartuko».

Itxieraren berri emateko, emaila bidaliko zaie bazkide guztiei, eta kartelak ere jarriko dira elkartearen kanpoaldean zein barruan. «Bazkide batzuei dei bidez abixatuko zaie».

Santa Barbara Elkarteak atek itxteak, eragin kaltega-

rriak izango ditu, «eragin ekonomikoa egongo da, azkenean ez da kontsumorik egon eta ez da egongo. Aforoa ere %50era jaitsi genuen, eta horrek diru gutxi ekarri du, azkenean konfinamendu ostean, mahai bakarra betetzen zen askotan, beldurragatik agian, edo jendearen erresponzabilitateagatik, noski».

«Orokorrean esan dezakegu, jendeak egoki jokatu duela, segurtasun neurriak bete direla. Azkenean, elkartera joaten den jende kopurua asko jaitsi da, eta horrek lasaitu egin gaitu Santa Barbara ixteko erabakia hartzerako garaian».



Santa Barbara kanpoan, aurreko urteko Euskal Jaietan.

«Atzo jarri ziren indarrean neurriak eta Ur-Mia elkarte ere, atzo goizean bertan itxi genuen»

Ereñotzu txikia bada ere, elkarte gastronomikoak ixteko agindua beteko du, hori horrela, atzo goizetik Ur-Mia elkarte itxita dago.

EREÑOTZU UR-MIA

Atzo jarri ziren neurriak indarrean, eta atzo goizean itxi zen Ereñotzuko Ur-Mia Elkarteak. «zuzendaritzan erabaki genuen neurriak errespetatu behar genituela». Ur-Mia elkarteak hainbat junta ditu, eta bertako ordezkariak «bazkideei mezua bidaltzeko ardura du».

Eragin ekonomiko nabarmena izango du egoera honek ere Ereñotzuko elkarteak, «orain arte bezala, azkenean galerez betetako urtea da aurtengoa. Erabilera asko jaitsi da, %70 bat, orain kontuak ari gara egiten eta gastuak kubritzeko, juxtu heltzen gara».

Tabernetan jarri diren neurri antzekoak ezarri zituz-

ten hasiera batean Ur-Mian, eta herritarrek bete dituztela ziurtatu dute, «ordutegiak bete egin dira, eta jendeak errespetatu ditu elkarteak jarritako neurriak. Gu ez gara egunero egon elkarte ikuskatzen, baina badakigu aipatu moduan, jendeak ondo jokatu duela, zentzuz eta jarritako neurriak errespetatuz».



Duela urte batzuk, Ereñotzuko Ur-Mia Elkarteak, hainbat bazkide afaltzen.

«Guk, asteartetik itxita daukagu elkarte»

Aurea hartu diete astigartarrek atzo indarrean jarri ziren neurriari. Izan ere, pasa den asteartean Gure-Izarra ixteko erabakia hartu zuten.

ASTIGARRAGA GURE-IZARRA

Pasa den asteartean itxi zuten Astigarragako Gure-Izarra Elkarteak, «oraingo zuzendaritzakoek bagenekien, indarrean jarriko zirela neurri hauek, eta Astigarragako egoera ikusita, aurreratu egin gara eta asteartean itxi genuen elkarte».

Gure Izarra elkarteak zuzendaritzak, Whatsapp bidez bildu dira, «talde bat daukagu eta hortik hitz egin genuen dena». Bazkideek, itxiera honen berri jakiteko, Gure Izarra elkarteak kartel bat jarri zen, eta horrez gain, «emailak ere bidali ditugu, egoera zein den informatzen eta zer erabaki



Aurreko urteko irailean, Astigarragako Gure-Izarra elkarteak egin zen sagardo dastaketan.

dugun azaltzen».

Astigarragan ere, eragin ekonomikoa izan du egoera honek, «kopurua gutxitu egin da, %50ean geneukan aspalditik, eta mugimendu gutxiago dago, horrela dirurik ez da egiten, fakturazioan asko nabarmen-

du da».

Pandemia dela eta, 8 mahai izatetik 4 izatera pasa zen elkarteak, «hauen arteko distantzia ere utziz. Eta bazkideek erabiltzen zituzten, objektu komunak kendu genituen, mantala, gatz-ontzia...».

Jakinarazi dute, astigartarrek ere, neurriak orokorrean ondo bete dituztela, «maskarillen erabilera nahiko konplexua izan da, baina hori kenduta, jendea nahiko kontzientziatuta dago egoerarekin, eta zaintzarekin».

«Gure ustetan, sortu ditugun kantak edo bertso sortak, ari dira euren bidea egiten»

Eli eta Manex Pagola anai arrebek, *Bertso Musikatuak* izeneko diska atera berri dute, eta azaroaren 7an eskainiko dute lehen kontzertua estreinakoz, Ereñotzun. Euren proiektuaren berri eman diote, Kronikari.

URUMEA ELI ETA MANEX PAGOLA

Atera berri duzue Bertso Musikatuk izeneko diska, nondik dator ideia? Noiz sortu ziren proiektu honen erroak?

E.P.: Konfinamendua etxe berean pasa genuen, eta ordu asko izan ziren. Hor jolas moduko bat egin genuen, kanta bat egitean oinarritzen zena. Nik bertso batzuk egin nituen, eta eskatu nion Manexi, hauek musikatze-ko, eta hasiera batean, hau guztia jolas gisa hartu genuen. Hala ere, kasualitatea izan zen, jolas hau egin eta pare bat egun igaro ostean, Berriatik deitu zidatela, bertso batzuk egiteko. Orduan, Manexekin batera egin nituen bertso musikatuk hautatzea erabaki nuen, eta elkarrekin egitea erabaki genuen, modu landuago batean. Eta hor egin genuen bertso sorta bat, musikatua izango zena.

M.P.: Ondoren lehiaketa bat atara zen, *Quarenttona* bertso kantatuen lehiaketa hain zuzen. Eta ordurako buruan geneukan nondik jo, beraz aurkeztu egin ginen. Gainera hirugarren abestiarekin, lehiaketa hau irabazi genuen.

E.P.: Azkenean aspalditik geneukan proiektu hau buruan, ez bere horretan, baina aspalditik planteatu genuen, elkarrekin zerbait egitea. Manex musikan ibili da eta ibiltzen da, eta ni berriaz letretan. Eta lehiaketa atara zenean, bi abesti bageneuzkan, hor erabaki genuen, lehiaketara aurkeztea hirugarren sorta batekin. Eta lehiaketa horretan irabazitakoarekin, diska ateratzea pentsatu genuen. Nahi genuen konfinamenduko argazki bat, CD formatuan, hau islatzen zuen zerbait.

Nola izan zen diska ateratzeko erabakia?

E.P.: Lehiaketan aurkeztu eta



Manex eta Eli Pagola anai arrebek, *Bertso Musikatuk* diska atera berri dute, eta azaroaren 7an egingo dute aurkezpena estreinakoz, Ereñotzun.

gero, hasi ginen pentsatzen diska nola egin, zenbat abesti sartu... eta erabaki genuen bost bertso musikatuk egitea. Baina esan bezala, konfinamendutik etorritako jolas gisa hasi zen proiektu hau. Esan bezala, lehiaketako diruarekin diska ateratzea pentsatu genuen.

Autogestio bidez funtzionatzen duzue, zer moduzkoak izan dira grabaketak, letrak egitea...

M.P.: Egiten genuena zen, bien artean zehaztu, zein izango zen melodia, eta abestiaren estruktura edo. Honela Elik, bertsotan nola egin jakingo zuen. Eta gero neuk, instrumental guztia egiten nuen. Hala nola; gitarra, baxua, biolina, alboka, txalaparta, elektronikak, güiroa eta zintzarria. Orduan egiten genuen, nik zati instrumentala egitean, gero Elik letra sartu eta abestia osatzen genuen. Orduan grabaketako azken zatia letra zen, hori aparte eginik. Bi lan independente egiten genituen, aurrez zehaztuta zer egin, eta ondoren dena batera jarri.

Anai arrebek izanik, zer suposatzen du edo nola sentitu zarete, elkarrekin honelako

proiektu bat egin duzuela jakitean?

E.P.: Gure senide harremana berezi xamarra da, ez gara askotan egoten elkarrekin. Orain bai, proiektu hau eskuartean daukagulako, bizi dugun egoeratik eta azkenean herrialde berean gaudelako. Baina, ez dut uste asko eragin gintuenik anai arreba izateak. Azkenean konfinamenduan kontaktu gehien geneukan pertsonarekin egin genuen hau guztia, eta hori nire anaia zen.

M.P.: Lehen aipatu moduan, aspalditik geneukan pentsatuta zerbait egitea elkarren artean, eta konfinamendu garaia etorri zenean, momentu aproposa iruditu zitzaigun, biak etxe berdinean sartuta, elkarren artean zerbait egiteko aukera ezin hobe suertatu zitzaigun.

Bertso Musikatuk diskako abestiek, zer kontatzen dute?

E.P.: Nire ustetan, gai desberdinak lantzen saiatu nintzen, bai egia da, orain ikusten dudala, momentu hartan kontatu nahi nituen istorio eta gauzak zirela. Azkenean bertso guztiak dira hilabete batean sortutakoak, eta gaiak badira momentuan

gertatzen ari ziren gauzei buruzkoak edo.

Azaroaren 7an estreinakoz, aurkezpena Ereñotzun, nola zaudete?

M.P.: Bai, elkarrekin egiten dugun lehen emanaldia izango da azaroaren 7koa. Gogoz gaudete, kontzertua eskainiko dugu. Gaueko 22:00etan hasiko gara kontzertuarekin, Ereñotzuko frontoian. Leku zabala da eta pentsatzen dugu edukiera aldeetik ez dugula arazorik izango. Hala ere, hori Ereñotzuko Auzo Udalak kudeatuko du, aurrez sarrerak hartu behar diren, eserlekuen distantziak zenbatekoak izango diren... hori ez dago gure esku. Eta kontzertuaren egunean bertan, diskak salgai jarriko ditugu.

Aurreikusita daukagu Durangon kontzertua, abenduaren 7an izango da, eta oraingoz hori da daukagun bakarra. Aurrerago ez dakigu zer etorriko den, azkenean gure hasierako asmoa ez zen kontzertuetan ibiltzea, diska atera nahi genuen eta gertuko oparitu.

Gainera, esan beharra dugu, aurtengo Hitzetik Hartzera telebista saioko musika gure albumetik ateratakoa dela.

E.P.: Hasieran, bi diska atera nahi genituen, bat Manexentzat eta bestea niretzat. Kontua da gaur egungo sistema honetan, merkeagoa dela 100 CD ateratzea, bi ateratzea baino. Eta behin CD hauek eginda, ingurukoei banatu genizkien, eta oso emaitza ona izan zuen. Gure ustetan, kantak edo bertso musikatuk ari dira beraien bidea egiten.

Apurka-apurka goaz, egoeraren arabera. Ereñotzitik deitu gintuzten kontzertua egiteko eta onartu egin genuen. Ez dizkiegu proposamen berriei ateak itxiko.

6 bertso sortaren lehen estrofa, 'Ezkondutik nintzian IV' doinuarekin

Auskalo non eta noizko lagun agurgarri zuretzako propio hamar bertso jarri azalduz diru gose kontsumo egarri gure bizimoduak ordaina ekarri digunera arte nola inor ez zen larri ea ez diren zure entretegarri. K

«Sentsazio oso onak dauzkat, baina bakarrik aritzea gauza bat da eta aurkariekin bestea»

Julen Gabirondo, Iban Pardo eta Mikel Lizartzarekin batera ariko da bihar Jauregin, 12:00etatik aurrera, Iñigo Merkader segalari hernaniarra Euskal Herriko 1go Segar Sail Txapelketan. 1.000 metro karratu moztu beharko dituzte ahalik eta azkarren.

HERNANI SEGA

Jauregi jatetxeko belardiak Euskal Herriko 1go Segar Sail Txapelketa hartuko du bihar, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Belarra ez da pisatuko eta azkarren moztu duenak irabaziko du lehenengo txapela hau. Partehartzaileen artean Iñigo Merkader hernaniarra ariko da, etxetik gertu, auzoan. Bere aurkariak izango dira Iban Pardo, pasa den urteko azkartasunean txapelduna, Julen Gabirondo txapeldun ordea eta Mikel Lizartza. Emakumezkoetan, Irati Astondoa, Alaitz Imaz, Malou Henriksen eta Ainara Otamendi izango dira lehian.

Nola iritsiko zara prestatuta txapelketara?

Saio batzuk egin ditut eta sentsazio oso onak dauzkat. Hala ere, bakarrik aritzea gauza bat da eta kontrarioak daukazunean aurrean beste bat.

Azkartasuneko txapelketetan arituak zarete segalariak behin baino gehiagotan, kioloak neurtzeko txapelketetan ere bai, baina txapelketa hau berria da ezta?

1.000 metro karratu moztu behar ditugu eta hemen ezin da azkarregi hasi. Azkar joanez gero atzean moztu gabeko belarra utzi dezakezu eta horrek esan nahi du atzera bueltatu behar duzula eta honela segundoko asko galtzen dira.

Nolatan animatu zara txapelketan partehartzera?

Berez Jon Otegi zen ateratzekoa, baina lanean min hartu omen du, niri esan zidaten ea animatuko nintzen partehartzera eta animatu naiz. Saio batzuk egin ditut eta ongi sentitu naiz.

Arraunak segarekin entrenatzeko denbora kenduko zizun.

Bai noski. Lehen esan bezala kapritxora udaran egin ditut saio batzuk. Konfinamendu garaian ere entrenamendu batzuk egiteko aukera ere izan nuen. Baserrian bizi naiz eta horren aukera izan dut, baina ez noski astean lauzpabost aldiz txapelketak prestatzen aritzen zarenean bezala. Arraunak asko laguntzen dizu sasoia manten-

tzen. Hauspoa lantzen da, nahiz eta teknikoki ez daukaten zer ikusirik eta teknikoki ariketa oso desberdinak diren. Hala ere, auspo aldetik oso ongi nago eta orain gimnasia pixka bat egin behar dut, posturak hartu eta agujeta batzuk pasa.

Txapelketa honek, animatuko al du Iñigo Merkader berriz ere segan maizago aritzea?

Beti esan dut sega ez dudala utzi. Hor dago eta edozein momentuan ekingo diot berriz sega jardunari. Oraindik ere 30 urte ditut eta arra hor dago. Ez dut baztertzen eta are gutxiago lan ona egiten badut.

Nola ikusten duzu biharko txapelketa? Ba al dago faboritorik?

Pardo eta Julen Gabirondo dira hautagai nagusiak. Julen oso indartsu dago eta garai onean dago. Pardok pasa den urtean erakutsi zuen maila handia duela eta gai dela Gabirondori aurre egiteko.

Lantegia berria da. Horrek eragina du?

Bai noski. Gero ere ikusi behar da aurkariak segan zenbat aritu diren. Txapelketarik ez egoteak entrenamenduak murrizten ditu eta seguru aukerarik ez dutela izan egunero edo bi egunetik behin entrenatzeko. Horrek ere aldea sortzen du.

Ikusmina sortuko du txapelketak nahiz eta kopurua murriztua egon.

Nik uste baietz. Uste dut 600 ikusle sartu daitezkeela.

600 ez da gutxi.

Sinatuko nuke 600 pertsona hurbiltzea.

Nola antolatuta dira sailak?

Lehendabizi neskak ariko dira eta behin neskak amaituta guk ekingo diogu lehiari. 400 metro karratu ebaki behar dituzte eta 200 metroko bi sail prestatuko dira. Guk 1.000 metro karratu moztu beharko ditugu eta 200 edo 250 metro karratuko sailak izango dira. Denak batera lehiatuko gara, laurak batera.

Zein izango da zure laguntzailea?

Zorroztaille bat izango du se-



Iñigo Merkader segalaria txapelketa batean.

«Azken bi urteetan sega alde batera utzita arraunean ibili naiz»

Iñigo Merkaderren ustez «urte arraro honetan uretan ordu asko galdu ditugu eta arraunean hasi berria izanda nik hori behar nuen».

HERNANI SEGA

Iñigo Merkader arraunean ibili da azken bi urteetan. Zaletasuna aitarengandik datorkio. Bere aita Jose Luis eta osaba Miel Kontxako txapeldun izan ziren Lasarte-Michelinekin 1973an eta arraunlari sonatua izan zen aita urte askotan.

Azken bi urteetan arraunean ibili zara Donostiarran. Segarik hartu al duzu?

galari bakoitzak eta nire aita eramango dut laguntzaile. Gero bi belar biltzaile egongo dira bakoitzarekin, nireak Matxain lehengusua eta lagun bat, eta hemen egongo da berrikuntza nagusia. Aurkariaren biltzaile egongo da segalari bakoitza-

2019 eta 2020an sega alde batera utzia izan dut. Etxean (Arkaizpe baserrian) ibiltzen naiz belar moztu, baina ez naiz txapelketak prestatzen ibili orain arte. Segar haundiarekin kiloetan apenas aritu naiz.

Arraunean zer moduz aritu zara?

Aurtengo urtea arraro xamarrak izan da. Hilabete dezente pasa behar izan ditugu etxean ergometro gainean entrenatzen bakarrik. Alde horretatik

ez zait hain gogorra egin segan ere bakarrik asko entrenatzen baita. Buruz eraman-garria egin zitzaidan, baina arraunean hasi berria izanda behar nuena uretan denbora aritzea zen eta aukera hori ez dugu izan. Uretan ordu asko galdu ditugu eta nik hori behar nuen, sekreturik ez dago.

Pozik emaitzekin?

Estropadak jokatu ditugu eta gustora aritu naiz. Esperientzia ona da.

rekin.

Ba al dago Hernanin beste segalaririk?

- Momentu honetan ez. Etxean Basozabalgo Jokin Urretabizkaia ibili da entrenatzen, Astigarra-gakoa da Suhari, Urnietakoa

Gabirondo, baina hernaniarrak ez. Kirol oso polita da, baina jende asko behar da ondoan, entrenamendu asko, herramintak behar dira eta ez da erraza. Ea honekin jendea animatzen den eta gastu gutxiagorekin segalari gehiago irteten diren. **K**

«Sekulakoa izan zen Sevillakoa; imajinatu ere ez genuen egiten, irabazi genezakeenik»

Bina domina eskuratu zituzten Ander eta June Balda astigartarrek, Espainiako Txapelketan; lautik hiru, urrezkoak. Ander arraunean pozik ikusita, probatu zuen Junek gero, eta «oso oso gustura» dabilta biak, banku mobilean.

ASTIGARRAGA ARRAUNA

Osteguna, goizeko seiak. Autobusa hartu, eta tropel majoa dijoa, 40-45 lagun, Sevillara bidean. Ur Kirolak arraun taldekoak dira denak, eta tartean dira hainbat astigartar. Horietako bi, menditik gertu bizi direnak, Astigarragako Bentetan, ibaitik urrun, eta itsasotik are gehiago. Baina arrauna dute afizioa, «oso oso gustukoa» gainera, Ander eta June Balda anai-arrebek.

Eta gustukoa izan bakarrik ez, ederki moldatzen dira biak, banku mobilean. Espainiako Txapelketa zuten Sevillan, hain justu; eta bina dominarekin bueltatu ziren handik, lau egun gogor bezain ederren ondoren. Urrezko bi domina kolkoratu zituen Junek, kadete mailan, lau banku mobilean: bai arraun bakarrarekin, eta baita birekin ere. Bietan, gainera, berarekin batera aritu zen Nahikari Artano astigartarra. Ander, berriz, banaka izan zen txapelkun, bigarrenari tarte handia aterata;

«Ondo ibiltzea espero genuen, baina ez hainbesteraino. Ikaragarritzko sentsazioa izan zen irabaztea, eta sekulako poza hartu genuen biok»

eta brontzezko domina kolkoratu zuen laukoan, bi arraunekin. Berak ere, beste astigartar bat, Unai Loyarte, izan zuen lagun laukoan.

«Ondo ibiltzea espero genuen, baina hainbesteraino ez», onartu du Junek: «udaran eternaldia egiten dugu normalean, baina pandemiagatik, aurten ez dugu atsedetik hartu, lehiaketak beranduago izan direlako. Eta merezi genuen lan horren saria». Anderri, entrenatzaileak esan zion, estropada ona eginez gero, bazuela aukera nahiko aurrean ibiltzeko, eta dominaren bat eskuratzeko: «baina banaka hain ondo ibiltzea, ezta burutik

pasa ere. Aurretik lan gogorra egin nuen, eta ondo atera zen dena. Ikaragarritzko sentsazioa izan zen. Imajinatu ere ez genuen egiten, irabazi genezakeenik. Sekulako poza hartu genuen», kontatu du berak.

Pandemiagatik, «dezente» aldatu dira estropadak

Ostegunean bertan iritsi ziren Sevillara, urriaren 8an, arratsaldeko 17:30ak aldera. «Hotelean gauzak utzi, materiala jaso, eta entrenamendu bat egin genuen, bidaiaren ondoren giharrak askatzeko», azaldu du Junek. «Bidaia nekeza izaten da pixka bat, baina behin bertara iritsita, burua txapelketan daukazu. Hasi aurretik, beti daukazu urdurtasuna, baina lehiatzen hastean lasaitzen zara», dio Anderrek.

Ostiralean egin zituzten beste bi entrenamendu saio, «ibaia ezagutzeko»; eta larunbatean hasi ziren lehiatzen. «Modalitate batzuetan, kanporaketak jokatu genituen, eta beste batzuetan, aldiz, finala bakarrik jokatzeko izan ziren kanporaketak eta semifinallak; eta igandean gainerako semifinallak, eta finalak. Azkeneko momenturaino aritu ziren lehiatzen biak, Ander eta June, eta igande eguerdian bertan abiatu ziren bueltan.

Pandemiaren eraginez, «dezente» aldatu da dena, estropadetan: «hasteko, maskarilla eraman beharra. Estropada eremura sartzeko, maskarilla jantzita eduki behar duzu, eta ezin duzu kendu lehiatzen hasi arte. Eta bukatu orduko, berriro jantzi behar duzu, arnasa berotuta zoazela oraindik», diote. Eguneroan txertatuta dauzkate, baita ere, desinfekzio kontuak, eta temperatura hartzearena.

Estropada eremura, gainera, arraunlari eta entrenatzaileak sartu zitezkeen bakarrik: «ikusleak, ibaiaren beste aldean zeuden, pasealekuan. Harmailak guretzat ziren bakarrik».

Etenaldia orain, beranduago eta ohi baino laburragoa

Espainiako Txapelketa izaten da azkeneko estropada, denboraldi bakoitzean. Baina ekaina



Ander eta June Balda, Astigarragako Bentetako parkean. Bertan bizi dira biak, ibaitik eta itsasotik urrun.

bukaeran egiten dute hori, eta ez, orain bezala, urrian: «irailan hasten dugu denboraldi berria normalean, eta orain, biak elkartu zaizkigu ia. Horregatik ari gara bi-hiru asteko atsedena egiten orain, eta berehala hasiko dugu denboraldi berria, azaroaren hasieran», azaldu dute: «oso ezberdina ari da izaten. Udaran gelditzen gara beti, eta aurten, aldiz, ia Gabonetan».

Banku mobilean aritzen dira biak, eta azaroaren bukaera aldera hasiko dute denboraldi berria. Neguan, dena den, ez dituzte estropada asko egiten. «Udaberrian izaten dira gehiago. Gipuzkoako Ligan, Orion jokatzeko ditugu estropada gehienak; eta Euskadikoan, Legution ere aritzen gara».

«Urumea ibaian, dena kurbak dira! Sevillakoa paradisia da horretarako!»

Entrenatu, berriz, ibaian egiten dute, Urumean gora eta beheara: «taldeko lokaletik atera, eta Kurzaaleko zubiraino jaisten gara, eta Arantzazuko Ama ikastolaren pareraino igo. Baina dena kurbak dira! Ahal dugun moduan aritzen gara. Gainera, eguraldi txarra egiten duenean, olatuak ere izaten dira; marearen arabera korronea gora eta beheara ibiltzen da; azpiko harriekin ere kontuz ibili behar

da... Sevillakoa bai paradisia, horretarako! Dena zuzen-zuzena, ez korronterik, ia beti eguzkia...», dio Anderrek.

Hainbeste kurbarekin, lepoa ere ondo entrenatuta daukate biak: «atzera begira joan behar dugu etengabe, 10 palada baino gutxiagotik behin. Lepoa ederki landuta daukagu! Retrobisorea jarri beharko diogu!», diote brometan. Baina ez lirateke aurrenekoak: «baten batek jarri izan dio, baina gehiago paseoan ibiltzen direnek. Lehiatzeko, ahalik

«Urumea ibaian, hainbeste kurbarekin, etengabe begiratu behar dugu atzera, 10 palada baino gutxiagotik behin. Lepoa ederki landuta daukagu! Keinua automatiko ateratzen zaigu»

eta pisu gehien kendu behar da. Atzera begiratzeko keinua, dagoeneko automatiko ateratzen zaigu», kontatu dute.

Bakarka da bereziki garrantzitsua, atzera begiratze hori, norberaren gain dijoalako dena.

Eta horixe du nahiago Anderrek: «normalean bakarrik aritzen naiz, eta aukeratzekotan, horixe aukeratu nuke. Ondo joanez gero, taldeka ere ederra da, baina banaka, edozer egiten duzula ere, badakizu zure kontua dela, onerako eta txarrerako». Laukoan, tarteka aritzen da bera, eta probatu ditu bestelakoak ere: «bikoan ere aritu izan naiz, eta aurten, asmoa daukagu zortzikoarekin aritzeko, behin edo behin. Baina hori ez da normala, gutxitan ateratzen dugu. Zaila da zortzi arraunlari ondo moldatzea», azaldu du.

Junek, aldiz, txandakatu egiten ditu modalitateak, denboraldiz denboraldi, kategoria aldaketagatik: «normalean aritzen garen taldean, urte ezberdinetakoak gara; eta beraz, kategoria berean tokatzen zaigu urte batean, eta ezberdinean hurrengoan. Horregatik, urte batean bakarka edo binaka aritzen naiz, eta bestean laukoan». Laukoan aritu da aurreko denboraldian, eta modalitate aldaketa izango du berrirako: «ez nuke jakingo aukeratzeko, oso ezberdinak dira. Bakarka, dena dijoa zure gain, eta egun txarra edukiz gero, gaizki joaten zara etxera. Laukoan, aldiz, zuk egun txarra izanda ere, beste hiruek lagunduko dizute agian, eta ondo bukatu dezakezu eguna».



June Balda, ezkerretik hasita hirugarrena, dominetako batekin.



June Balda, bigarren tokian, Espainiako Txapelketan bi urrezko domina eskuratu zituen laukoan.

June Balda: «Palan aritzen nintzen ni, eta Ander arraunean hasi zenean, hain gustura zebilela ikusita, probatzeko gogoia sartu zitzaidan niri ere. Pala utzi, arraunean hasi, eta asko gustatu zitzaidan niri ere»

Frontoitik uretara salto, biek Etxean duten ingurutik ez datorkie arraunerako afizioa, eta ezta gurasoen aldetik ere. Uretan baino, frontoian hasi ziren biak, gainera. Esku pelotan Ander, eta palan June. Horretan bai, bazuten erreferentzia etxean: «esku pelotan aritu zen aita gaztetan, eta oso ondo, gainera», diote.

Baina Anderrek bazuen arra sartua txikitatik, arraunerako: «beti gustatu izan zait arrauna, txikitatik. Estropadak ikusten nituen, eta baita arraunlariak ibaian ere. Erakarri egiten zidan horrek, eta azkenean, esku pelota utzi, eta arraunean hasi nintzen. Baina nik ez nekien zertan sartzen nintzen ere, banku mobila edo fijoia zer ziren... Arrauna gustatzen zitzaidala, eta horixe

probatu nahi nuela. Banku mobilean hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Pixkanaka hartu nuen teknika», kontatu du. Duela bost urte hasi zen arraunean, 12 urterekin, eta gaur arte ez da uretatik atera ia.

Eta anaia gustura zebilela ikusita, probatzeko gogoia sartu zitzaion Juneri ere. Pala alde batera utzi, eta uretara egin zuen salto, berak ere, anaiak baino urtebete beranduago. 10 urte zituen orduan. «Probatu, eta asko gustatu zitzaidan niri ere».

«Elkarrekin ez gara inoiz aritu, baina probatu beharko dugu. Biak etxeakoak izanda, ondo moldatuko ote gara!» Orduetik, «oso oso gustura» dabilta biak banku mobilean, eta

ez dute aldatzeko asmorik: «probatuko genuke trainerua agian, baina oraingoz ez daukagu buruan», diote. 17 eta 14 urterekin (15 beteko ditu Junek azaroan), «oso urruti» ikusten dute hori.

Bi urteko adin tartearrekin, ez dute kategoria berean koinziditzen biek, eta beraz, modalitate mixtoak dauden arren, ezin dute elkarrekin lehiatu. Baina lehiatik kanpo ere, ez dira inoiz aritu elkarrekin: «entrenatzen ere ez dugu elkarrekin egin arraunean. Baina probatu beharko dugu, ea zer moduz moldatzen garen. Biak etxeakoak izanda, ondo moldatuko ote gara!».

«Oso gogorra da arrauna, asteen bost edo sei egunez entrenatzen dugu»

Arraunaz esan ohi da askotan, kirol sakrifikatua dela. Eta traineruan ez ezik, hala gertatzen da banku mobilean ere: «oso gogorra da arrauna. Jubeniletan, asteen sei egunez entrenatzen dugu; eta kadeteetan, bost egunez. Negu partean, bereziki, gogorra egiten da, eguraldi txarra izaten delako, eta ezin dugulako

uretara atera. Ergometroan aritu behar dugu orduan, eta guk nahiago dugu uretara atera».

Uretako entrenamendu horiek, Urumean ez ezik, urrutiago ere egin izan dituzte, Frantziako Landetara jotzen baitute taldearekin, noizean behin. Eta urrutiago ere ibilitakoa da Ander.

Izan ere, Italian aritu zen joan den urtean, Gazteriaren Kopa deitzen duten txapelketan, Europa mailan. «Oso ondo aritu nintzen, oso gustura. Oraindik kadetea izan arren, jubeniletan aritu nintzen, eta bigarren egin nuen, poloniar baten atzetik».

Aurten ere aritu da Europako

Txapelketetan, Serbian, baina zortziko modalitatean lehiatu da oraingoz, Espainiako selekzioarekin; eta zazpigarren egin zuen. Espainiako Txapelketa baino bi aste lehenago izan zen hori, eta lanpetuta pasa zuen udara: «hiru hilabetez egon nintzen Galizian, selekzioarekin, Europako Txapelketa prestatzeko».

Garbi daukate anai-arrebek, arraunean jarraitu nahi dutela. Eta oraingoz, gustuko dutena egitearen plazerra bakarrik ez, emaitza ederrak ekarri dizkie biei; etxe ondoan dituzten mendien oso bestelako ingurunean arituta ere. **K**

Ander Balda: «Beti gustatu izan zait arrauna, txikitatik. Esku pelota utzi, eta arraunean hasi nintzen, baina nik ez nekien zertan sartzen nintzen ere, banku mobila edo fijoia zer ziren... Arrauna gustatzen zitzaidala, eta horixe probatu nahi nuela. Banku mobilean hasi nintzen eta, gustatu egin zitzaidan»



Ander Balda, bakarkako banku mobilean. Urrezko domina eskuratu zuen, aldearekin eskuratu ere.



Ander Balda, Espainiako Txapelketan lortutako bi dominekin.

Zita dauka bihar eguerdian talde trikoloreak, Alcobendasen

Bihar eguerdiko 14:00etan jokatuko du Hernanik, Ohorezko Mailan jokatzeako kanporaketa, Las Abelles taldearen aurka, Alcobendasen.

HERNANI ERRUGBIA

Hernanik, Ohorezko Mailan ari-zeko kanporaketa jokatzea erabaki zuen, duela egun gutxi. Eta jakinarazi dute klubetik, «jokariengan eta elkarte guztia inguratzen duen alderdian pentsatuta» hartu zela kanporaketa jokatzearen erabaki garrantzitsu hau.

Hori horrela, bihar, Madriren jokatuko du talde trikoloreak, Alcobendasen. Eguerdiko 14:00etan hasiko da partidua, eta Les Abelles talde balentziarra izango dute aurkari. Gainera, aurreko denboraldiko Ohorezko B mailako B taldeko



Hernani, urte hasieran, Ordiziaren aurkako partiduan.

irabazleak izanik, Hernanik gogor egin beharko du, Ohorezko Mailara igotzeko postua eskuratzeko. Saria garrantzitsua da,

izan ere, irabaziz gero, bi aste barru, berriro ere maila gorenean jokatuko baitute Hernaniko gazteek, beste behin. **K**

Partidu guztiak, bertan behera

Azkenean, ez dituzte jokatuko asteburu honetan, ez partidu ofizialak, eta ezta lagunartekoak ere.

HERNANI ESKUBALOA

Asteburu honetako partiduen zerrendan bost ziren Hernaniko eskubaloi taldeek jokatuko behar zituzten norgehiagokak. Hala ere, azken egunetako egoerak ekarri du, partidu guztiak bertan behera utzi edo atzeratu behar izatea.

Atzo goizean iragarri zuen taldeak, lagunarteko bi partiduak bertan behera geratuko zirela: kadete neskena, eta jubenil mutilena. Neskek gaur eguerdian zuten lagunarteko Egiaren aurka, eta mutilek, berriz, Leizaran izango zuten aurkari igandean, antolatutako lagunartekoan.

Baina atzo Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz, partidu ofizialak ere bertan behera geratu zirela jakinarazi zuen Hernani Eskubaloi Taldeak, atzo iluntzean.

Asteburu honetan hastekoak ziren, eskubaloi ligak

Ez da liga hasiera erraza izango inorentzat. Bailarako kirol talde guztiek arazoak izan dituzte entrenamenduak ohiko moduan egiteko, eta erritmoa hartzea normalean baino zertxobait gehiago kosta zaie guztiei. Eskubaloi taldeen kasuan, lagunartekoak izan dituzte orain arte, prestaketa hori indartzeko; eta asteburu honetan ziren txapelketa hastekoak. Lehiaren hasierak, ordeak, gehiago itxaron beharko du, eta asteburu honetan behintzat, ez dute partidurik jokatuko.

Asteburu honetan ekin behar zion, esaterako, senior mutilen talde berriak. Urolaren kontra zeukan hitzordua, bihar, eguerdiko 12:00etan hasita.

Bihar bertan zen txapelketa hastekoa, kadete mutilen taldeetako bat ere, Hernani Sorlan. Zarautzen aritzekoak ziren haiek. Eta kadete mutilen beste taldeak, Hernani Leokak, gaur jokatuko behar zuen Egiaren kontra, etxean, goizeko 10:00etan hasita.

Liga hasierak itxaron egin beharko du oraingoz, talde guztientzat ere. **K**

Pandemia egoeragatik Gipuzkoako Futbol Federazioak datozen bi jardunaldiak atzeratzea erabaki du

Egoerak baimentzen duenean jokatuko dira momentuz atzeratu diren norgehiagokak. Lagunartekoak ere ez dira izango eta Hernanin, bestalde, udalerria «alerta gorria» dagoen

ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren menpe dauden lehiaketa guztien hurrengo bi jardunaldiak atzeratzea erabaki dute eta, beraz, Astigarraga eta Hernaniko taldeen norgehiagokak ez dira jokatuko asteburu honetan eta hurrengoan. Erabaki hau da Gipuzkoako 20 udalerririk «alerta gorria» daudelako eta Gipuzkoako Futbol Federazioak «pertsonek osasuna babesteko eta zuzentzeko» irizpideak bermatu nahi dituelako.

Atzo eguerdian argitaratu zen komunikatua, eta bertan azaldu zituzten txapelketako bi jardunaldiak atzeratzearen zergatiak. Jakitera eman zuten, «Eusko Jaurlaritzak argitaratutako murrizketen ondoren

eta Gipuzkoan alerta gorria daudela 20 udalerririk kontuan hartuta, eta gure txapelketako klubei eragiten dien Nafarroako Foru Erkidegoaren itxiera perimetrala gehituz, Gipuzkoako Futbol Federazioak erabaki du bere menpe dauden lehiaketa guztien hurrengo bi jardunaldiak atzeratzea». Horretaz gain, lagunarteko partidurik ez da baimenduko, besterik jakinarazi arte.

Federazioak klubekin egindako bilera guztietan jakinarazi duenez, pandemiaren bilakaerak markatuko du lehiaketaren garapena. Hori horrela, datozen egunetan bilakaera horren arabera erabakiak hartuko dira, «betiere gure kirolarien osasuna lehenetsiz». Ondorioz, Astigarragan eta Hernanin ez da



C.D.H.-ko jokalaria baloia hanketan duela, joan den asteko Añorgako partiduan.

norgehiagokarik jokatuko.

Hernanik Lesakan jokatuko behar zuen

Gizonezkoen lehenengo taldeak Beti Gazte zuen aurkari asteburu honetan. Lesakara joatekoa zen

talde berdea, baina Nafarroako mugak itxi dituztenez, aurretik jada partidua atzeratzea erabaki zuten. Zubipen jokatzea pentsatu bazuten ere, egoerak ez du baimendu aukera hori aurrera eramatea eta, beraz, aurrerago

jokatuko da norgehiagoka.

Mundarroko gizonezkoen lehenengo taldeak, berriz, Urnieta zuen aurkari asteburu honetan. Egoerak hala behartuta, hori eta datorrena, Ostadarren aurkakoa, atzeratu egin dira. **K**

Bertan-behera gelditu da Galarretako gaueko jaialdia

Gaueko 22:00etan ziren jokatzekoak bi partiduak, baina pandemia dela eta ez da saiorik izango, gaur.

HERNANI ERREMONTEA

Oriamendik gaurko prestataua zuen gaueko jaialdia bertan behera uztea erabaki berri du. Eusko Jaurlaritzaren gomendioak jarraituta, Hernani eremu gorrian dago, egokiena ez jokatzeko delako uste du Galarreta kudeatzen duen enpresak. Ez zegoen derrigortua erabaki hori hartzea, baina arduraz jokatu behar dela uste du eta Jaurlaritzaren gomendioa jarraituko du.

Gaueko jardunaldia bertan-behera gelditu da

Bost asteko atsedendialdiaren ostean Galarretak atek ireki behar zituen berriro ere, aste-buru honetan. Gaur ziren jokat-



Kutxabank Torneoko finalurrekoan erremontistak, Galarretako frontoian.

tzekoak, erremontisten arteko bi partida. Seguroa eta Labaka, Etxarri eta Zalduaren aurka lehiatzekoak ziren, 40 tantora. Urriza eta Zubiri, berriz, Goikoe-txea Vgarrena eta Barrenetxea IVgarrenaren aurka ziren jokatzekoak, 40 tantora, baita ere.

Saioa gaurko 22:00etarako zegoen programatuta. Urriaren 31n ere gaueko ordutegian jokatzekoa zen jaialdia. Horren inguruan ez da ezer esan eta, beraz, aurrera egingo dute horrekin. Gaur, bertan-behera gelditu den saioan bi partidu-

jokatuko ziren; bata Binakako Txapelketaren aurrekoa eta bestea estelar bat.

Etxarri eta Seguroa aurre-lariak aurrelari postua izango zuten jokoan eta Zaldua eta Labaka atzelariak, atzelaldean. Bikoteak elkarren artean gurtzatuko ziren gaurko saioan eta baita 31ko bi partiduetan ere. Emaizta onenak lortzen dituzten aurrelariak eta atzelariak titular postua lortuko dute Binakako Txapelketan, azaroaren 7an hasiko da, ohiko ordutegian, 16:30etan. **K**

Jokatu behar ziren bi partiduak atzeratzatu egin dira, pandemiagatik

Partiduez gain, entrenamenduan ere bertan-behera gelditu dira momentuz.

HERNANI BOLEIBOLA

Asteburu honetan jubenil neskek eta senior mutilek partidua jokatu behar zuten, baina atzeratzea erabaki dute, azken egunetan larritu den pandemia egoeragatik. Jubenil neskek jokatu behar zuten lehenengo, arratsaldeko 16:00etan. Txapelketako lehen partidua izango zen gaurkoa.

Nesken ondoren, arratsaldeko 18:00etan senior mutilek

Euskadiko Ligako bigarren jardunaldia jokatuko zuten, oraingoan Gasteizko bigarren taldearen aurka. Aurreikusita zeuden bi partidu hauek atzeratu egin dira eta arduradunek jakinarazi dutenez, egoera hobetzen denean eta baimena badute, txapelketako bi topaketa hauek ospatuko dituzte.

Azken hauek ilusio handia dute denboraldia behar bezala hasteko. Izan erre, hasiera zai-

la izaten ari da jokalarientzat lesioak eta ezbeharrak medio, plantilla justu dagoelako. Hala ere, indarrez aurrera egingo dutela ziurtatu dute.

Neskentzat ere egoera berezia da aurtengoa. Jokalari gazteek osatutako taldea da, eta esperientzia falta dute kategorian honetan. Jokalari askorentzat lehenengo urtea da jubenilen mailan eta, beraz, motibazioz eutsi behar diote, kategorian maila ona emateko. Hala ere, entrenatzaile berria dute, Eligio Rodriguez. Bera arituko da neskak entrenatzen, eta gogoz ekin dio karguari. **K**

Partiduak izango dira asteburuan

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera jokatuko dituzte partiduak jubenilek eta kadeteek, kiroldegiko frontoian.

URUMEA ESKU PELOTA

Joan den jardunaldia ezin hobea izan zen Hernaniko esku pelotariarentzat. Sei partidutik bost irabazi zituzten hernaniarrek, eta garrantzitsuenetan ez zuten hutsik egin. Kadete bigarren mailan irabazi egin zuten Unax Manterolak eta Manex Martinek, Azeitian; eta Aiur Elizazuk eta Auritz Txintxurretak, Lasarten. Asteburu honetan Hernani 1 Zumaiaren aurka arituko da gaur, arratsaldeko 16:00etan Hernaniko frontoian. Bosgarren jardunaldia da beraientzat eta lehenengo postua mantentzen dute, sailkapen orokorrean.

Seniorren hirugarren mailan Xabier Salaberriak eta Xabier Ortiz de Urbinak garaipena lortu zuten Epleren aurka,

Gipuzkoako Txapelketan. Atzo Zumaiaren aurka jokatu zuten arratsaldeko 19:00etan, txapelketako azken fasean.

Jubeniletan, berriz, jardunaldi arraroa izan zen. Porrota jaso zuten Uitzik eta Etxarrik, eta garaipena Arluziagak eta Laboak, aurkariak aurkeztu ez zirelako. Asteburu honetan atsedena dute Hernani 1 jubenilek. Hernani 2 bikoteak, aldiz, Tolosaren aurka gaur du norgehiagoka Hernaniko frontoian, arratsaldeko 16:00etan. Eta jubenilen bigarren mailan ere partiduak izango dira bihar: Aretxabaletaren aurka indarrak neurtuko dituzte hernaniarrek, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Nagusien Ohorezko Mailan ere partiduak jokatuko dira asteburuan. Intxurre Hernaniren aurka arituko da gaur, goizeko 10:00etan hasita. Bosgarren jardunaldia izango da hauena, eta azkena datorren asteburuan izango dute, Ilunperen aurka indarrak neurtuta. Sailkapen orokorrean hirugarren postua dute orain, pelotari hernaniarrek. **K**

Bertan-behera gelditu dira norgehiagokak

Gizonezkoen senior kategoriako lehenengo eta hirugarren mailako partidu gehienak etetea erabaki du Federazioak.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOAIA

Astigarragako eta Hernaniko saskibaloia taldeek txapelketarekin jarraitu behar zuten asteburu honetan. Hala ere, Urumea Bailarako beste kirol talde gehien modura, bertan-behera gelditu dira larunbat eta igandeko partiduak. Astigarragako mutilen senior taldeak Bosteko Irauli taldea zuen aurkari, etxean. Eta Hernaniko mutilen senior taldea, berriz, Atletico San Sebastianen aurka arituko zen. Denboraldiko hirugarren jardunaldia zen bi taldeentzat, eta gogotsu zeuden partidurako. Izan ere,

joan den asteburuan bi taldeek galdu egin zuten Zarautz eta CD Internacionalesen aurka.

Senior gizonezkoen lehenengo mailako partidu guztiak bertan-behera gelditu dira, hiru izan ezik. Take Orbela eta Electricidad Perosanzen arteko norgehiagoka atzeratu egin da, eta CD Internacional-Donosti Dolphins, Añorga-Zaintzen Askatuak, berriz, asteburu honetan jokatuko dira.

Gizonezkoen hirugarren mailan, aldiz, partidu guztiak bertan-behera gelditu dira. Astigarragako taldeak etxean zuen topaketa, Zalburdi Debasketen aurka. Eta Hernaniko taldeak, berriz, Contubi Oiarso zuen aurkari, Hernaniko kiroldegian. Bigarren jardunaldia zen bi taldeentzat eta momentuz bertan-behera gelditu dira kategorian honetako topaketa guztiak. Egoerak bermatzen duenean jokatuko dituzte partiduak. **K**

EGURALDIA

GAUR



Zerua oskarbi egongo da ia egun osoan; lehen orduetan laino edo lanbroa sor daiteke eta puntualki goi-laino batzuk agertuko dira. Hego/hego-mendebaldeko haizea ibiliko da. **Min.11° / Max.21°**

BIHAR



Giro euritsua izango dugu eta temperatura jaitsi egingo da. Goizaldean hego-haizea ibiliko da oraindik eta giro epela izango da; lainoak pixkanaka ugartuz joango dira. **Min.12° / Max.16°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Josteko makina salgai, pedalezkoa. 70 euro inguru. Deitu: 943 55 12 76

Hernaniko okindegi batean euskaraz dakien saltzaile bat behar dugu dendarako, jardunaldi osoan. **Deitu goizez 609543900ra 10tatik 14tara.**

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Arroza zopa barazki, langostino eta mejilloiekin - Mingaina saltsan patata frijituekin - Natillak. **10,5 €.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Ordulariaren orratzak ordubete atzera, neguarekin batera

Urtero moduan, garai honetan, ordu aldaketa gertatzen da neguko ordutegira egokitzeke, eta 03:00etan 02:00ak izango dira. Horrenbestez, biharko egunak 25 ordu izango ditu.

URUMEA ORDU ALDAKETA

Bihartik aurrera, eguzkia lehenago hasiko da mendi artean gordetzen, eta arratsaldeetan lehenago ilunduko duela nabarituriko dugu. Hau da, bihartik aurrera, ordubete lehenago argituko du, eta ordu bete lehenago ilundu.

Izan ere, urriko hilabete honetan, udazkenarekin batera, ordulariak ordubete atzeratzeko eta neguko ordutegira egokitzeke unea heltzear da. Biharko ordu aldaketa izango da, ordulariak ordubete atzeratu beharko dira, neguko ordutegira egokitzeke, eta 03:00etan 02:00ak izango

dira. Horrenbestez, igandeak 25 ordu izango ditu.

Urtero bi aldiz, ordulariaren orratzei buelta

Urtero, bi aldiz errepikatzen da ordu aldaketa, udaberria eta udazkena hurbildu ahala.

Hala ere, gai honek, mamia du, izan ere, Europako Batzordeak 2018an egindako inkestan, kontsultatutako pertsonen %84a araudia aldatzearen alde zeuden. Eta aldaketa hurrekoa izatea espero zen: teoriarik, 2019ko martxoan azkena gertatu beharko zen. Hala ere, azkenean data atzeratu egin da.

Espainiar estatuan, ordutegi aldaketa bukatzearen aldeko biztanleen ehunekoa ez da hain handia, % 60a hain zuzen, eta, bitxia bada ere, hirugarren adinaren aldekoa da gazteen artean baino. Eta %13,8k bakarrik aukeratzen du neguko ordutegia, eta %65,4k nahiago du udakoa, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) datuen arabera.

Abantailak zein desabantailak ditu, ordu aldaketak, eta hainbat azterketa egin dituzte, horretan oinarrituz. Askok adierazten dute «gure organismoa errazagoa dela urriko ordu aldaketara egokitzea; udaberrian, berriz, ez da hain erraza, batez ere berandu oheratzeko eta goiz jaikitzeke ohitura dutenentzat. *Jet lag*-ekin gertatzen denaren antzekoa da efektua: honek eragin handiagoa du ekialderantz goazenean eta, beraz, denbora galtzen dugu mendebalderantz



Goizeko 03:00etan, 02:00ak izango dira.

goazenean baino. Banakoen arteko aldeak nabarmenak diren arren, gure gorputzera aldatzen den ordu bakoitzeko egun bat behar duela kalkulatu da».

Askok, nahiago dute udako ordutegia, argi gehiago dago, egunak badirudi luzeagok direla, eta hamaika arrazoi daude tartean. Udako ordutegian, argi ordu gehiago izango genituzke, eta neguko hilabeteetan ez litzateke inoiz ilunduko 19:00ak baino lehen. Hala ere, oraindik argitu gabe dagoenean eskolara edo lanera sartzea (eguzkia 09:00ak baino geroago aterako litzateke) «ez da hain erakarga-

ria, eta uste da produktibitatea aldaketarekin ahulduko litzatekeela». Gainera, gure jarduerak gehiago garatuko lirateke bero handieneko ordutetan, eta aire girotuaren kontsumoa handituko litzateke. Abantailak, ordea, bistakoak dirudite: argi naturalaren ordu gehiagok gozatuko dugu, eta lanetik ateratzean ez da gaez izango.

Gure inguruan, faktore asko daude gure ordutegia baldintzatzen dutenak. Hala ere, momentuz, erlojuak prestatu behar ditugu, orratzei buelta eman, eta eguna ahal den moduan aprobetxatu. **K**